

Egindako Partaidetza Diagnostikoa

Sopelako emakume gazteen beharrizanei eta berdintasun- desberdintasun egoerei buruzkoa

2014



Sopelako Udala



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

EDUKIA	Orrialdea
1. SARRERA	2
2. HELBURUAK	3
3. ERABILITAKO METODOLOGIA	6
4. AZTERKETA KUANTITATIBOA	11
4.1. Datu demografikoak	11
4.2. Enpleguari buruzko datuak	13
4.3. Gizarte sarea	14
4.4. Udal ekipamenduak eta tipologia	17
4.5. Gazteei zuzendutako gizarte zerbitzu eta programak, kirol programak, kulturalak, osasunekoak, berdintasunekoak.	19
4.5.1. Gizarte Ongizatea	19
4.5.2. Kultura eta aisialdia	22
4.5.3. Kirola	25
4.5.4. Osasuna	28
4.5.5. Berdintasuna	29
4.5.6. Partaidetza	29
5. AZTERKETA KUALITATIBOA	31
5.1. Trebakuntza	31
5.2. Enplegua	33
5.3. Etxebizitza	39
5.4. Osasuna	41
5.5. Partaidetza	45
5.6. Egunerokotasuna, harremanak eta aisialdia	52
6. ONDORIOAK	61
7. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK	65

1. SARRERA

Sopelako Udalak urte asko darama emakume gazteengana hurbildu nahian haien beharizan eta eskaerak zeintzuk diren jakiteko; izan ere, emakume gazteok ez dute gizarte antolatuan parte hartzen eta zaila egiten da informazio hori eskuratzea.

Hortaz, emakume gazteen egoera ezagutzeko, **Sopelako emakume gazteen beharizanei eta berdintasun-desberdintasun egoerei buruzko Partaidetza Diagnostikoa** egin da aurten. Bi helburu nagusi ditu honakoak: batetik, emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez emakume gazteen eskaera eta interesak zeintzuk diren ezagutzea, eta bestetik, emakume gazte hauen bakarkako partaidetza eta taldekakoa bultzatzea. Horretarako, talde baten sorrera bultzatu da, emakume gazteen topagunea izan nahi duena, eta haien arteko desberdintasunak alde batera uztea eskatuko duena. Horrela, batzen dituzten eta landu nahi dituzten gaiak balioan jar ditzatela eta lehentasun bihur daitezela sustatu da.

Ikerketa honen sortze prozesuan, emakume izatearen kontzientzia argia duten neska batzuekin egin da lan. Horrek lan-taldeetan egindako hausnarketak genero perspektiba nabaria izatea eragin du, lan arlo guzti guztietan.

Ikerketa honek, gainera, aurretik emakume eta gizon izateagatik bizi ditugun desberdintasunak planteatu ere egin ez zuten gazteek, emakume zein gizonek, hala egin dezatela ahalbidetu du; hau da, ikerketak ustez bizi duten eskubide berdintasuna zalantzan jar dezatela eragin du kasu askotan, eta eztabaida piztu da haien artean.

Amaitzeko, ikerketa honek emakume gazteen errealitateak ezagutzeko informazioa eskainiko digu. Baita etorkizunerako proposamenak planteatzeko ere, Sopelako Udalerrian emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzerako edo urritzera bideratutako neurriak eta ekintzak bultzatu nahi badira.

2. HELBURUAK

Proiektu hau honako helburu hauek bultzatu zuten:

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko balizko ezinegon eta arazoak testatu eta diagnostikatzea, bertatik Udalerriaren errealitatera egokitutako etorkizuneko ekintzetarako aholkuak eratortzeko.**

Prozesuan zehar, emakume gazteek gizonetikiko desberdintzat bizi dituzten egoerak detektatu dira eta haien kezka nagusiak jaso dira. Horiek izan dira, hain zuzen, ikerketaren atal desberdinei itxura eman dietenak, maila kualitatiboan zein kuantitatiboan. Focus Group taldeetan emakume gazteek haien kezka eta ardurei buruz hitz egiteko aukera izan dute, eta horri esker datuak eskuratzeaz gain, gainontzeko erremintak sortzeko aukera ere izan da: sarrerak Facebook sare sozialeko profilean, galdetegia osatzeko galderak, eta abar.

- **Emakume eta gizonen berdintasun aukerei buruzko hausnarketa eta kritika gunea sortzea.**
- **Emakume eta gizonen berdintasunari dagozkion gai zehatzak eztabaidatzeko topagune bat sustatzea; betiere, genero estereotipoak ezabatzerantz bideratuta egongo dena. Izan ere, jakin badakigu, estereotipoek pertsonok erabat mugatu eta baldintzatzen gaituztela.**

Focus Group taldeetan hausnarketa gune bat bultzatu eta sortu da, eta parte hartzaileei gune hori era iraunkorren mantendu dezaten iradoki zaie; are gehiago, bulkada hau baliatzea eta emakume gazteen talde bat sortzeko proposamena luzatu zaie. Edonola ere, ez du ematen emakume talde honek egingo duenik; beraz, betetzeke dagoen helburua izaten jarraitzen du.

- **Balioen aldaketa bultzatzea, batez ere, emakume gazteen artean.**
- **Autonomia pertsonal, afektibo eta sozialerako prozesuak hastea.**

Helburu hauekin hasi eta biak ala biak planteatu dira, balioen aldaketak zein autonomia prozesuak. Gailentzekoa da, diagnostikoan parte hartu duten hainbat emakumek badutela ibilbidea egina berdintasun esparruan. Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak antolatu dituen lehen ekintzetatik hasita partaide izan dira; esate baterako, "Emakumeentzako Autodefentsa" ikastaroan zein "Feminitatearen Labirintoa" izeneko ikastaroan parte hartu dute.

- **Emakume hauei erraztasunak eskaini Mankomunitatean emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko antolatzen diren ekintzetan parte har dezaten.**

Ikerketa hau garatzeko prozesu parte hartzaile honetan zehar Mankomunitatean genero berdintasun esparruan antolatzen diren ekintza guztien informazioa zabaldu da.

- **Kolektibo honekin esku-hartzen duten eragileen ordezkariak dituzten gaiari buruzko iritziak eta gehi ditzaketen datuak jasotzea.**

Txostenaren 4. puntuan, "Antolaketa kuantitatibo" atalean, eskuragarri dauden datu guztiak bildu dira eta 5. puntuan, aldiz, "Azterketa kualitatiboan", elkarrizketen bitartez eskuratu dugu informazioa. Elkarrizketa horiek diagnostiko honetan sailkatu ditugun emakume gazteen interes arloekin harreman zuzena duten lanpostuak betetzen dituzten langileei egin zaizkie.

3. ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerlan hau partaidetza-metodologia erabilia burutu da, eta fase guztietan Sopolako emakume gazteen errealitate egokitu da; oso errealitate heterogeneoak jasotzen dituen taldera, hain zuzen. Gainera, esan gabe doa, prozesu parte hartzaile osoan zehar ahalik eta gazte gehienek parte har dezatela bilatu dela.

Ikerlan honetan azaldutako arlo edo esparruen analisi zehatza egiteko eskema metodologiko bera eta partaidetza-tresna berberak erabili dira. Honakoak ditugu aztertutako arloak: osasuna, trebakuntza, enplegua, etxebizitza, partaidetza, egunerokotasuna, harremanak eta aisialdia.

3.1. DATU KUANTITATIBOAK BILTZEKO METODOLOGIA

Datu kuantitatiboan bilketa, sexu eta adinaren arabera banandutakoa, ezinbestekoa izango da egitasmo honen analisi kuantitatiboa egiteko. Bide desberdinak erabili dira horretarako:

- Internet bidezko bilaketa. Dagoeneko existitzen diren datuak. (Udaleko webgunea, Eustat, INE...)
- Datu jakinen eskaera egitea Sopolako Udalerrian eskumenak dituzten zerbitzu eta erakunde publikoei.
- Datu jakinen eskaera Sopolako Udalerriko politikari eta teknikariei.
- Datu jakinen eskaera elkarteetan, taldeen edota Sopolako biztanle antolatuek parte hartzen duten beste eragile batzuen ordezkari.

Informazio horren bilketa, aurrez aurre, telefonoz, helbide elektroniko bitartez edo *online* arakatze aktibo bidez gauzatu da.

3.2. DATU KUALITATIBOAK BILTZEKO METODOLOGIA

Datu kualitatiboen bilketaren helburua da diagnosi honi gehitzea aukera berdintasun alorrean Udalerriko erreferente diren barne eta kanpo eragileen bizipen, sentsazio eta jakituria.

3.2.1. Ikerlan parte-hartzaile honen Informazio eta sentsibilizazio kanpaina

Ikerlan honek ahalik eta eragile gehien parte hartze eraginkorra eta ordenatua izan zezan, beharrezkoa izan da gazteria osoari zuzendutako aurre-kanpaina bat egitea. Horrenbestez, informazio eta sentsibilizazio kanpaina garatu da, ikerlanaren berri eman eta partaidetza bide berriak irekitzeko funtsezkoa izan dena.

Kanpaina honetan, honako publizitate euskarri eta estrategia hauek erabili izan dira:

- Kartela, triptikoa eta txartel handia:

Sopelako ahalik eta gazte gehiengana iristeko asmoz, egitasmo hasieran diseinatu izan dira. Hiru euskarrietan, kartel, triptiko eta txartel handian, egitasmoaren oinarriko informazioa eskaintzen da: nori zuzentzen zaion, nork bultzatzen duen, helburuak, lan taldeen bileren hitzorduak, enpresa dinamizatzailearekin harremanetan jartzeko datuak (telefono zenbakia, e-posta) eta Facebook profila.

Helburua gazteen arreta deituko zuen iragarpen-materiala sortzea zen. Horrexegatik, egitasmo honek Sopelako emakume gazteen beharrianak eta berdintasun gabezien egoerak ikustarazteko duen garrantziaz ohartuta ere, lengoaia informala erabili da. Izan ere, lengoaia formala erabiltzeak gure xede taldea gurera hurbildu baino urrundu egingo lukeela uste baita.

Kartelak gazteentzako ohikoak diren espazio publiko zein pribatuetan kokatu dira: Kurtzio Kultur Etxea, Turismo Bulegoa, Sopelako Udaletxea, Kiroldedia (Sopela eta Larrabasterra), metro irteerak (Sopela eta Larrabasterra), tabernak (la Cala, Laiak, Lurren, Txindor, Herriko Taberna, Cherokee, Erroia, Gerizpe), parke eta enparantzako informazio panelak (Gernika Plaza, Jauregizar Plaza, Kitarjolearen parkea -Sipiri kalea 20-, Udaletxeko Plaza, Iturrieta Parkea)

Triptikoak Kurtzio Kultur Etxean utzi dira, eta kultur etxean bertan antolatutako abortoarene lege erreformaren hitzaldian banatu dira (2014.03.07), baita Iruñan deitutako abortoarene lege erreformaren kontrako manifestaziora joateko antolatutako autobusean banatu ere. Sopela-Iruña-Sopela ibilbidea (2014.04.05)

Komunikaziorako materiala helbide elektroniko eta WhatsApp bitartez ere zabaldu dugu eta Facebook profilean eskegi dugu; ikerketa honetarako propio sortu dugun horretan, hain zuzen. Era berean, Udalerriko teknikariei ere bidali diegu haien kontaktuen artean zabal dezaten.

- Facebook profila:

Kontuan izanda ikerlaneko xede taldeak erabiltzen duen sare sozial erabiliena Facebook dela, egitasmo honetarako *ad hoc* sortutako profil bat sortzea erabaki da:

<https://www.facebook.com/sopelakoemakume.gazteenahotsa>

Aurreko atalean aipatu bezala, facebookeko profil hau egitasmoari buruzko informazioa zabaltzeko erabiltzeaz gain, gazteei horretarako egokitutako gune eta tresnetan parte hartzeko gonbitea luzatzeko erabili dugu. Hala ere, beste helburu bat ere bete da: pardaidetzerako online gunea ahalbidetzea. (ikus 3.2.2 atala)

- Telefono eta e-posta bidezko kanpaina:

Ikerketagaiaren esparruan erreferenteak izan daitezkeen gizarte eragileei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpaina, e-posta zein telefono bitartez egindakoa.

- Komunikabideetan egindako kanpaina:

Sopelako Udaleko Komunikazio sailak prentsa oharrak bidali ditu, eta El Correo eta Deia bezalako egunkariek zabaltzea lortu da. [Www.ukberri.net](http://www.ukberri.net) hedabide digitalean ere zabaldu dute eta baita Onda Vasca irrati katean ere.

- Online kanpaina

Ikerketari buruzko informazioa Udaleko webgunean (www.sopelaudala.org) zein Uribe Kosta Mankomunitatekoan (www.uribekosta.org) argitaratu da.

3.2.2. Partaidetza kanalak eta tresnak

Ikerketa parte hartzaile hau gauzatzeko honako partaidetza-tresna hauek erabili dira:

- Teknikariei elkarrizketak
 - Estibaliz Anitua. Berdintasun teknikaria UKZM.
 - Naiara Billalabeitia. Kultura, Gazteria eta Kirol teknikaria. Sopelako Udala.
 - Begoña Ruiz. Gizarte Zerbitzuak UKZM.
 - Iñigo Valdivielso. Sopelako Osasun Zentroko Koordinatzailea.
 - Unai Espino. Servicio enpresa. (Sopelako Udal kirol instalazioen kudeatzailea)
 - Arrate Eguzkiza. Hirigintza teknikaria. Sopelako Udala
 - Lander Etxebarria. Alkatearen aholkularia. Sopelako Udala
 - Behargintza

- Focus Group emakume gazteekin.

Lau lan-bilera egin dira Sopelako emakume gazteekin: 2014ko otsailaren 25ean, martxoaren 18an, apirilaren 8an eta maiatzaren 6an, Kurtzio Kultur Etxean, 19:00etatik 21:00etara.

Bilera hauetan, betiere partaidetza bultzatzeko metodologia erabilia, bileretara gerturatu diren emakume gazteei dagokigun gaiaren inguruan ahotsa eman zaie.

- Emakume eta gizon gazteei zuzendutako galdetegiak

Emakume gazteekin Focus Group dinamikak amaitu ostean, eta ondorioak sistematizatu eta gero, galdetegi bat sortu da, emakume zein gizon gazteei egin eta lan taldeetatik ateratako ideiak berresteko. Galdetegi horri bakarka eta era anonimoan erantzun diote, horretarako ireki diren bi partaidetza-kanalen bitartez:

- Udalerriko gazteriarri zuzendutako partaidetza-ekintza irekia. (2014ko ekainak 27)
- Inkesta telefonikoak.

123 gaztek erantzun diote galdetegiari: 65 emakumek eta 58 gizonek. Erantzuteko dinamika planteatu diren baieztapenei 1etik 10erako balorazioa ematean datza; hau da, erabat ados egotekotan 10eko puntuazioa eman diote baieztapenari eta baieztapen horren erabat kontrakoak badira, ordea, puntu bat eman diote.

- Online tresna: Facebook

Facebook profil bat sortu da propio ikerketa parte hartzaile honetarako: <https://www.facebook.com/sopelakoemakume.gazteenahotsa>

Horren bitartez, lan-taldeetan egindako lan eta galdetegien berri emateaz eta haietan parte hartzeko gonbitea luzatzeaz gain, gazteek ikerketa honetan online parte hartzeko aukera izan dute. Ikerketan landutako interes gaiei buruzko hainbat galdera planteatu izan dira, eta erabiltzaileen hausnarketa pertsonala bultzatu da; horrela, komunikazio kanal irekia mantendu dugu prozesu osoan zehar, proposamenak, zalantzak edota iritziak plazaratzeko interesa izan duen edozeinek hala egiteko aukera izan zezan.

Facebook profil hau, informazio bilketaren fase osoan zehar egunero gaurkotu dugu honako argitalpen hauekin:


- Bileretan aurrez aurre landutako gaien inguruko galderak.
- Hurrengo bilerarako deialdiaren gogorarazpena eta gonbite zuzena aurrez aurreko partaidetzara.
- Telefono bidezko galdetegia egiteko gonbidapena.
- Gazteriari zuzendutako partaidetza-ekintza irekian parte hartzeko deialdia.
- Partaidetzara -online zein aurrez aurrekora- animatzeko eta horren garrantziaz jabetzeko irudi, esaldi eta esapideak. Horrez gain, emakume eta gizonen berdintasunaren garrantzia gailendu eta emakumeen arteko sareak sortzearen aldeko mezua ere argitaratu dira, sentsibilizazioa helburu.

4. AZTERKETA KUANTITATIBOA

4.1. DATU DEMOGRAFIKOAK

Sopelako Udalerriak 12.977 biztanle ditu, 6.364 gizonak dira eta 6.613 emakumeak, erroldako datuek adierazten duten bezala.


Era berean, Udal erroldako datuen arabera, 18-35 urte bitarteko biztanleen artean 1.305 emakumezkoak dira, eta 1.273 gizonetzkoak, ondorengo grafikoa ikus dezakegun bezala.



Iturria: Udal Errolda.

Grafikoa: geuk egindakoa


Iturri horrexek adierazten duen bezala, Sopelako biztanle etorkinen kopurua honakoa da:



Iturria: Udal Errolda.

Grafikoa: geuk egindakoa

Grafiko honetatik ondoriozta dezakegu etorkinen jatorria:



Iturria: Udal Errolda.

Grafikoa: geuk egindakoa

Biztanle etorkinei dagokionez, 173 pertsonak 18-35 urte bitarteko adina dute. Horiek horrela, Sopelako 1.305 emakume gazteen artean 100 dira etorkinak eta 1.273 gizon gazteen artean 73. Aipatzekoa da udalerri honetako dagoen Amerikako jatorria duten emakume etorkinen kopuru altua.

Lehenago adierazi dugun bezala, Sopela Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko erdigune administratiboa da, eta mankomunitateko herrien artean zerbitzu eta baliabide kopuru handiena duena. Modu berean, biztanleriaren dentsitateak ere herri hauetako biztanleria-kontzentrazioa adierazten digu (km²-ko biztanle kopurua 2012.urtean):

Barrika	196,1
Berango	775,99
Gorliz	542,89
Lemoiz	57,27
Plentzia	745,08
Sopela	1.538,97
Urduliz	464,32


Iturria: Garapen

Horrek Mankomunitateko gazteentzat ere erdigunea izatea dakar.

4.2 ENPLEGUARI BURUZKO DATUAK


Garapen Hiri-Behatokitik (Garapen Agentzien Euskal Elkartea) jaso dira ikerlan honetarako enpleguari buruzko 2013ko datuak. Horiek horrela, bildutako eta adierazitako datu guztiak 2013 urtekoak dira. Gure uste apalean, azken urteotan lan merkatuak eraldaketa nabaria izan duenez, garrantzitsua da aurreko urteetako datuak ere aurkeztea Sopelako gaur egungo emakume eta gizonen arteko desberdintasun eta berdintasunen argazki bat izan nahi duen ikerlan honetan.

Hala, Sopelako biztanleen langabezia-tasa 13,87koa da; emakumeena 15,25ekoa, gizonena baino zertxobait altuagoa; izan ere, gizonen langabezia-tasa 12,65koa baita. Sektoreka banatuta berriz, horrela banatu da langabezia:



Iturria:
Garapen Hiri-Behatokia.
Grafikoa: geuk egindakoa

Bestalde, langabeziaren datuak adin taldeen arabera sailkatuta aztertzen baditugu, ondoriozta dezakegu bakarrik 25 urtetik beherakoen taldean ikusten dela emakumeen langabezia gizonena baino baxuagoa. Horrek ez du esan nahi Sopelako neska gazteek enplegua dutenik; ezta gutxiagorik ere, baizik eta langabezi zerrendetan geroago ematen dutela izena; dela formazioa hobetzeko epea luzatzen dutelako edota dela ez dutelako beharrik sentitzen enplegua aktiboki bilatzeko.



Iturria:
Garapen Hiri-Behatokia.
Grafikoa: geuk egindakoa

4.3. GIZARTE SAREA

4.3.1 Gazte taldeak

Sopelan elkarte bezala eratuta ez dauden emakume eta gizon gazteez osatutako bi talde daude. Bi talde horiek, hortaz, ez dute Zuzendaritza Batzorderik, ezta bazkiderik ere ez, eta ondorioz, ezin dira datu horiek xehatu.

- Gazte Asanblada Feminista
- Sopelako Koadrilen Koordinakundea (SKK)

4.3.2 Elkarte eta Kirol Klubak

Sopelan 16 dira adin guztietako pertsonez osatutako elkarte eta kirol klubak:

- Airetik Parapente Elkartea
- D'Arco, Arku Tiro Elkartea
- Kurene Pilota Elkartea
- Moreaga Ugerzaleak Sopelana (M.U.S.)
- Munarri Atletismo Taldea
- Munarrikolanda Mendi Taldea
- Peña-Txuri Surf Taldea
- Tai-Txi Taldea
- Ugeraga Futbola
- Ugeraga Txirindularitza
- Ugeraga Saskibaloia
- Urko Mendi Taldea
- Hirubi-k Sopelako Triatloi Taldea
- Iristaketa Taldea
- Sopelako Moreaga Boloak Kirol Kluba
- Sopela Itxas Bide Surf Kluba

Elkarte eta Kirol Kluben osaera

ELKARTEA	Bazkideak orotara			Orotara 18-35				
		♂	♀		♂ 18-25	♀ 18-25	♂ 26-35	♀ 26-35
Airetik Parapente Elkarte	18	15	3	3	0	0	2	1
Sopela Itxas Bide Surf Kluba	31	19	12	12	3	3	3	3
Ugeraga Txirindularitza	65	44	21	52	23	16	9	4
D'Arco, Arku Tiro Elkarte	55	46	9	16	4	1	9	2
Club de Triatlón Hirubi-k	22	19	3	6	1	0	4	1
Tai-Txi Taldea	70	20	50	21	3	5	3	10
Munarri Atletismo Taldea	32	26	6	1	0	0	1	0
Iristaketa Taldea	14	13	1	0	0	0	0	0
Ugeraga Saskibaloia	173	75	98	59	10	10	24	15
Munarrikolanda Mendi Taldea	105	74	31	14	0	0	10	4
Moreaga Ugerzaleak Sopelana (M.U.S.)	83	46	37	4	0	0	2	2

Iturria: Elkarte eta Kirol Klubak

Taula: geuk egindakoa

Datuetan ikus dezakegun bezala, gizonezkoen bazkide kopurua emakumezkoena baino altuagoa da oro har, honako elkarte hauek salbuetsita: Tai-Txi Taldea eta Ugeraga Saskibaloia.

18-25 urte bitarteko adin tarteari erreparatzen badiogu, parte hartzaileen kopurua oso txikia da, bi hauetan salbu: Ugeraga Txirindularitza (23 mutil eta 16 neska) eta Ugeraga Saskibaloia (10 neska eta 10 mutil). Gainontzeko Klubetan gazteen partaidetza maila oso txikia edota nuloa da (Airetik Parapente Elkartean, Munarri Atletismo Taldean, Iristaketa Taldean eta Munarrikolanda Mendi Taldean gertatzen den bezala.) Hortaz, ondoriozta dezakegu Sopelako gazteek nahiago dutela txirindularitza edo saskibaloia bezalako kirol ekintzetan aritu, gainontzeko kirolen aurretik.

Bestalde, 26-35 adin tarteari gagozkiolarik, Ugeraga Txirindularitza taldean partaide kopurua jeisten dela ikus daiteke, 9 gizonetzko eta 4 emakumezko, hain zuzen. Baina saskibaloian, aldiz, kopurua igo egiten da; izan ere, Ugeraga Saskibaloian 24 gizonetzko eta 15 emakumezko baititugu.

Horrenbestez, 18-35 urte bitarteko emakume eta gizonen arteko alderaketa egiten badugu, kirol elkarteetan gizon bazkide gehiago daudela ondoriozta dezakegu, Tai-Txi Taldean izan ezik, jakina denez, oraindik ere emakumeekin lotzen den kirola baitugu.

Zuzendaritza Batzordeen osuera

ELKARTEA	Orotara	♂	♀	Orotara 18-35	♂	♀	♂	♀
		18-25	18-25		26-35	26-35		
Airetik Parapente Elkarte	1	1	0	0	0	0	0	0
Sopela Itxas Bide Surf Kluba	6	4	2	1	0	0	0	1
Ugeraga Txirindularitza	5	4	1	5	1	0	3	1
D'Arco, Arku Tiro Elkarte	1	1	0	0	0	0	0	0
Hirubi Triatloi Kluba	7	5	2	1	0	0	0	1
Tai-Txi Taldea	6	3	3	0	0	0	0	0
Munarri Atletismo Taldea	3	3	0	0	0	0	0	0
Iristaketa Taldea	6	2	4	0	0	0	0	0
Ugeraga Saskibaloia	7	6	1	3	0	0	2	1
Munarrikolanda Mendi Taldea	5	2	3	0	0	0	0	0
Moreaga Ugerzaleak Sopelana (M.U.S.)	3	3	0	0	0	0	0	0

Iturria: Elkarte eta Kirol Klubak

Taula: geuk egindakoa

Taulan ikus dezagun bezala, 35 urtetik gorakoek osatzen dituzte Kirol Kluben Zuzendaritzak kasu gehienetan 4 elkartetan izan ezik. Horietan emakumeek betetzen dituzten karguak hauexek ditugu:

Sopela Itxas Bide Surf Klubean, 26-35 urte bitarteko emakume bat.

Ugeraga Txirindularitzan, 26-35 urte bitarteko emakume bat, lehendakariordea.

Hirubi Triatloia Klubean, 26-35 urte bitarteko emakume bat, diruzaina.

Ugeraga Saskibaloian, 26-35 urte bitarteko emakume bat, bokala.

4.3.3. Beste elkarte batzuk

Aipatutako kirol elkarteek gain, Sopelan badaude bestelako elkarte batzuk ere:

- AITXU (euskara elkarte)
- MEÑAKOZ Kultur Elkarte (kultura eta euskara elkarte)
- Zipiriñeko IRAUPEN Gurasoen Elkarte
- Sopelako Institutuko HASIERA Gurasoen Elkarte
- MUNARRI abesbatza
- Erretiratuen abesbatza
- ZIRRIMARRA (margo elkarte)
- ITZARTU emakumeen elkarte
- Erretiratuen Elkarte

4.4. UDAL EKIPAMENDUAK ETA TIPOLOGIA

4.4.1. Gizarte Ongizatea

Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatean sei gizarte langile daude, horietatik bi erreferenteak dira Sopelako Udalerrian.

4.4.2. Kultura eta aisialdia

Honakoak dira, kultura eta aisialdiari lotuta, Sopelak dituen Udal ekipamentuak:

- Kurtzio Kultur Etxea
 - KZ Gunea
 - Gaztelekua
 - Ludoteka (4-12 urte bitarteko haurrentzat)
- Liburutegia
- Musika Eskola

4.4.3. Kirola

Sopelak 4 udal kirol instalazio ditu:

- Abadesolo Kiroldegia: igerilekua, jarduera-aretoak, Padel pista bi eta sauna dauzka.
- Urko Kiroldegia: kirol kantxa eta jarduera-areto bat dauzka.
- Urko Harrera: Ziklo jarduerarako areto bat dauka eta beste bat gainontzekoetarako.
- Frontoia: pilotan aritzeko frontoi bat eta jardueretarako areto bat dauzka.

4.4.4. Osasuna

Sopelak Osasun Zentro bat dauka eta honako espezialitate hauek eskaintzen ditu:

- Familia medikuntza
- Pediatria
- Erizaintza
- Emagina
- Errehabilitazioa

Ginekologia zerbitzurako Areetara bideratzen dira emakumeak.

4.4.5. Berdintasuna

Uribe Kosta Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua dago Sopelan, eta bertan, Berdintasun teknikari batek egiten du lan.

4.5. GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTE ZERBITZU ETA PROGRAMAK, KIROL PROGRAMAK, KULTURALAK, OSASUNEKOAK ETA BERDINTASUNEKOAK.

4.5.1. GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate Sailak jarduerarako hiru eremu ditu, eta eremu bakoitzean, gazteei zuzendutako zerbitzu bereizgarriak eskaintzen ditu, ondorengo taulak adierazten duen bezala:

	Zerbitzuak	Hartzaileak
1.- BABESGA BETASUNA	1.1 Gizarte-hezkuntzako esku-hartze zerbitzua (EISE)	1.1. Babesgabe geratzeko arriskuan dauden adingabeak eta familiak.
	1.2 Arreta psikosozialerako zerbitzua (SEDIM)	1.2. Genero indarkeriaren emakume biktimak, eta babesgabe geratzeko arriskuan dauden adingabe eta familiak .
2.- DEPENDENTZIA, DESGAITASUNA	2.1 Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (ZAINDUZ)	2.1. Norbaiten kargu edo zaintzaren arduradun direnak.
	2.2 Eguneko arreta zerbitzua	2.2. 60 urtetik gorakoak.
	2.3 Etxez etxeko laguntza-zerbitzu (ELZ)	2.3. Dependentsia maila arineko pertsonak
	2.4 Pertsona desgaituentzako aparkaleku txartelak.	2.4. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonak.
	2.5 RESPIRO programa	2.1. Norbaiten kargu edo zaintzaren arduradun direnak.
	2.6 Arreta soziosanitarioa	2.6. 65 urtetik gorako pertsona menpekoak, edo hala egoteko arriskuan daudenak.
3.- BAZTERKETA	3.1 Zerbitzu pertsonalei lotutako diru-laguntza ekonomikoen kudeaketa eta promozioa. (AES)	3.1. Biztanleria osoa
	3.2 Partaidetza eta gizarte zerbitzuen arloko gizarte inklusioa bultzatzeko zerbitzua. (INSEBICION PROGRAMAK)	3.2. Biztanleria osoa
	3.3 Behin behineko bizitoki zerbitzua (SINHOGARISMO)	3.3. Gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonak
	3.4 Bizitoki iraunkorrerako zerbitzua (PAR)	3.4. 60 urtetik gorako pertsonak
	3.5 Arreta soziojuridikorako zerbitzua	3.5. Emakumearentzako zerbitzua
	3.6 Menpekotasun edo adikzioen prebentziorako zerbitzua, prebentzio komunitarioa: tabakoaren mendekotasuna gainditzeko tailerra.	3.6. Biztanleria osoa

Iturria: Gizarte Ongizatea. UKZM

Taula: geuk egindakoa

2013 urtean zehar, 528 pertsona artatu ziren. Horietatik, 110 pertsona ikerlanari dagokion adin tartekoak ziren (18-35), %75 emakumeak. (83 emakume eta 27 gizon)

	Orotara	♂	♀	Orotara 18-35	♂	♀
Artatutako Biztanle kopurua	528	66	311	110	27	83

Iturria: Gizarte Ongizatea. UKZM

Taula: geuk egindakoa

Datuok zerbitzu zehatzen arabera sailkatzen baditugu, honako taula hau eskuratuko dugu:


Esku-hartze eremuak	Zerbitzuak	Orotara	♂	♀	Orot. 18-35	♂	♀
1.- BABESGABETASUNA	1.1	26	5	21	2	0	2
	1.2	8	2	6	2	0	2
2.-DEPENDENTZIA, DESGAITASUNA	2.1	64	20	44	2	1	1
	2.2	0	0	0	0	0	0
	2.3	23	0	23	0	0	0
	2.4	23	11	12	0	0	0
	2.5	7	2	5	0	0	0
	2.6	41	15	26	0	0	0
3.- BAZTERKETA	3.1	81	34	47	43	18	25
	3.2	54	17	37	6	1	5
	3.3	0	0	0	0	0	0
	3.4	0	0	0	0	0	0
	3.5	22	0	22	3	0	3
	3.6	25	10	15	3	2	1

Iturria: Gizarte Ongizatea. UKZM

Taula: geuk egindakoa

Honako hauek ditugu 18-35 urte bitarteko biztanleen artean babesgabetasun eta dependentzia zerbitzuen erabilera datuak:


- 1.1. Gizarte-hezkuntzako esku-hartze zerbitzua: bi emakumek erabiltzen dute
- 1.2. Arreta psikosozialerako zerbitzua: bi emakumek erabiltzen dute.
- 1.3. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua: emakume batek eta gizon batek erabiltzen dute.



Gizarte-bazterketaren prebentziorako zerbitzuen erabilerrari dagokionez, betiere adin tarte honetan, honakoak ditugu datuak:

- 3.1. Zerbitzu pertsonalei lotutako diru-laguntza ekonomikoen kudeaketa eta promozioa. (AES): 25 emakume eta 18 gizon.
- 3.2. Partaidetza eta gizarte zerbitzuen arloko gizarte inklusioa bultzatzeko zerbitzua. (INSERCIÓN programa): 5 emakume eta gizon bat.
- 3.5. Arreta soziojuridikorako zerbitzua: 3 emakume.
- 3.6 Menpekotasun edo adikzioen prebentziorako zerbitzua: emakume bat eta bi gizon.

Gazteek gehien erabiltzen duten zerbitzua 3.1. Zerbitzu pertsonalei lotutako diru-laguntza ekonomikoen kudeaketa eta promozioa (AES) da. 25 emakumek eta 18 gizonak erabiltzen dute eta horrek gaur egungo krisi ekonomikoak gazteengan duen eragina berresten du, batik bat, emakumeengan, haien baliabide ekonomikoak murriztu baitira.



4.5.2 KULTURA ETA AISIALDIA

- 4.5.2.1. Kultur ikastaroak Kurtzio Kultur Etxean

2013 urtean Sopelako Udalak kultur ikastaro hauek antolatu ditu Kurtzio Kultur etxean:

2013ko urtarriletik ekainera (2012-2013 ikasturtea):

- Autoestimatu ikastaroa: Tangoa
- Argazkigintza
- Antzerkigintza (ez zen talderik atera)
- Jaioberrientzako masajeak
- Imitaziozko bitxigintza

2013ko irailtik abendura (2013-2014 ikasturtea):

- Tangoa
- Argazkigintza
- Euskal kantak
- Euskal dantzak

Kultur ikastaroetako partaidetza datuak

IKASTAROA	Orot ara	♂		Orot. 18-35	♂		♀	
		♂	♀		18-25	18-25	26-35	26-35
Autoestimatu ikast.	17	3	14	2	0	1	0	1
Tangoa	44	13	31	11	3	1	3	4
Argazkigintza	33	7	26	11	0	2	2	7
Imitaziozko bitxigintza	9	0	9	1	0	0	0	1
Jaioberrientzako masajeak	13	0	13	8	0	0	0	8
Euskal kantak	7	1	6	0	0	0	0	0
Euskal dantzak	75	13	62	4	0	0	0	4

Iturria: Sopelako Udaleko Kultura Saila

Taula: geuk egindakoa


Taulako datuek adierazten duten bezala, ikastaro kulturaletan 18 eta 35 urte bitarteko pertsonen parte hartzea txikia da. Are txikiagoa gizonen kasuan; izan ere, 6 gizonen parte hartu baitute horietako ikastaroren batean. (Zehazki, 4 gizonen Tangoan, eta bik Argazkigintzan)

Emakume gazteen kasuan, 26-35 urte bitartekoek gehiago parte hartzen dute 18 -25 urte bitartekoek baino. Lehenengo adin tartekoei dagokionez, emakume bat Autoestimua ikastaroan, lau Tangoan, 7 Argazkigintzan, 1 Imitaziozko Bitxigintzan, 8 jaioberrientzako masajeak ikastaroan, eta 4 Euskal Dantzetan aritzen dira. Bigarren adin tartekoei dagokionez, emakume batek Autoestimua ikastaroan, beste batek Tangoan, bik Argazkigintzan parte hartzen dute; gainontzeko ekintzetan, ordea, ez dute parte hartzen.

Ikus daitekeenez, emakume gazteen artean interes handien Jaioberrientzako masajeak eta Argazkigintzak dute; gutxien, aldiz, Autoestimua, Bitxigintzak eta Euskal Kantak.

- 4.5.2.2. Kultur Ekintzak

Kultur ikastaroez gain, Sopelako Udalak kultur programazioa ere antolatzen du, eta bi hilean behin argitaratzen den agenda kulturalan iragartzen ditu. Publiko orokorrari zuzendutako ekintza kulturalak dira, baina umeei edo helduei zuzentzen ote zaizkien identifikatu dezakegu. Edonola ere, ekintza bat bera ere ez da zuzentzen eskusiboki Udalerriko emakume edo gizonei. Ekintza hau 2013ko partaidetza daturik ez dago eskuragarri



Iturria: Sopelako Udaleko Kultura Saila

Grafikoa: geuk egindakoa

Grafikoan jasotzen den bezala, Udalerriko 2013ko agenda kulturalako ekintzen %36 umeei begira daude. %20 genero perspektibadun ekintzak dira (zinema, hitzaldiak, kale-ekintzak); ia %15 musikarekin lotutako ekintzak dira (kontzertuak, festibalak); %12 antzezlan eta bakarrizketak dira, eta beste %12 hitzaldi eta mahai-inguruak. Zinema eta dantzen kasuan, agenda kulturalaren %3 hartzen du diziplina bakoitzak.

Grafiko horrek ez ditu bildu, alabaina, 2013ko agenda kulturalaren bitartez zabaldu diren honako ekintza hauek (hurrenkera kronologikoan):

- Sopolako Merkatarien Elkartearen Azoka
- Korrika
- Diskoen Azoka
- Esaera Zaharren XX.Txapelketa
- Artisautza Azoka
- Nekazaritza Azoka
- Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa
- Bigarren eskuko Azoka
- Euskararen Astea

- 4.5.2.3. SOPESEX

SOPESEX 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako sexologia aholkularitza zerbitzu bat da, eta bertan, psikologo eta sexologo batek aholkularitza, laguntza.. eskaintzen dute. Kurtzio Kultur Etxean kokatuta dago, eta uritik maiatzera dago zabalik, ostegunero, 18:00etatik 20:00etara.

Arreta zerbitzua aurrez aurre, telefonoz, zein e-postaz eskaintzen dute. Hala ere, bertan ez dute ekintzarik antolatzen, ezta beste ekintzetako markoan bertan ere. Arreta zerbitzuen daturik ez dago eskuragarri.

- 4.5.2.4. Ikasketa Gela

Ikasle gazteei zuzendutako zerbitzua da, bertan Udalak ikasketa gela bat eskaintzen du gazteek ikasi eta azterketak presta ditzaten. Urte osoan zehar zabalik dago larunbat eta igandeetan, jaiegunetan izan ezik (Aste Santua, abenduak 25, urtarrilak 5).

2013 urtera arte, hori barne, liburutegiko instalazioetan eskaintzen zen zerbitzua. 2014ko urtetik aurrera, aldiz, Kurtzio Kultur Etxean eskaintzen da. Ez dago erabilera daturik eskuragarri.

4.5.3 KIROLA

Sopelako biztanleei eskaintzen zaizkien ekintzak bi eragile desberdinek antolatzen dituzte: alde batetik, Udalak bultzatzen dituenak daude, normalean Udal kirol instalazioetan izaten direnak eta bestetik, kirol elkarte eta klubek antolatzen dituztenak, normalean Udalaren laguntzarekin.

• 4.5.3.1. Udalak antolatutako kirol ekintzak

Udal kirol instalazioak Serviocio enpresak kudeatzen ditu, eta enpresa bera da bertan antolatzen diren ekintzak aukeratu, antolatu, eta zabaltzen dituenak.

Abadesolo Kiroldegian honako ekintza hauek antolatzen dira:

- Igerilekuan eta igeriketari lotutakoak: umeentzako ikasketa ikastaroak, jaioberriak, helduentzako ikasketa ikastaroak, Aquafitnessa, Aquapilatesa, Kaloriak erretzeko ikastaroa, Terapeutikoa, Matroigeriketa, Sinkronizatua.
- Fitness aretoan (gimnasioan) entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen dira.

Urko Harrera: *Ziklo, Pilates, Body Combat, Body-Pump, Streching, Sha Bam, Body Gip, Tonifikazioa, Upa Dance, GAH* eta *Body Balance* ikastaroak eskaintzen dira.

Frontoia: *New Ace, Ballet, Kick Boxing, Body Combat* eta *Pilates* ikastaroak eskaintzen dira.

Kirola egiteko interesa duten 16 urtetik gorakoek hilean inskripzio bakarra egiteko aukera dute eta, horrela, igerilekuko eta aretoetako ekintzetan parte hartzeko aukera izaten dute (umeei zuzendutako ekintzetan izan ezik).


Sistema horrekin erabiltzaile guztiak edozein eskolatara eta ordutegitara joan daitezke, egunean nahi duten guztietan. Horiek horrela, ez dago ekintzen erabiltzaileen daturik eskuragarri; bai ordea "ekintza mota"-ren arabera sailkatu direnak: aretoetako ekintzen erabiltzaileenak, igerilekuko ekintzenak eta fitness aretokoak.

Horrela sailkatuta, jarraian 2013ko ekintzen erabiltzaileen hilez hileko batz besteko datuak aurkezten ditugu, adinka eta sexuka banatuta:

Erabiltzaileak orotara (>16)	596				
Orotara 18-25	50	Aretoetako ekintzak	49	♂	5
				♀	44
		Igerilekuko ekintzak	1	♂	0
				♀	1
Orotara 26-35	98	Aretoetako ekintzak	86	♂	11
				♀	75
		Igerilekuko ekintzak	12	♂	0
				♀	12

Iturria: Servicioc

Taula: geuk egindakoa



Datuek adierazten duten bezala, areto eta igerilekuko ekintzetan parte hartzen duten 18-25 urte bitarteko gazteak erabiltzaileen %25 dira. Ehuneko horren barruan, emakumeak dira erabiltzaile nagusiak adin tarte honetan; izan ere, %90 emakumeak dira. (132 emakume eta 16 gizon). Adinari dagokionez, %34 18-25 urte bitarteko emakumeak dira, eta %66 26 eta 35 urte bitarteko emakumeak.

Aretoetan gauzatzen diren ekintzei era berezitan erreparatzen badiegu (aurretik aipatutakoak) gailentzekoa da gizonezkoek soilik parte hartzen duten ekintza bat badagoela: Kick Boxing. Ziklo ikastaroan, emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua orekatua da, %50; gainontzeko ekintzetan, baina, emakumeek bakarrik hartzen dute parte.

Ondorengo taulan, fitness aretoko (gimnasioko) erabiltzaileen hilekako batuz bestekoa daukagu, adinka eta sexuka banatuta:

Erabiltzaileak orotara (>16)	2.346		
Orotara 18-35	868	♂	460
		♀	408

Iturria: Servicio

Fitness aretoko erabilera datuek, 18 eta 35 urte bitarteko emakume eta gizonen erabileran berdintasun egoera handiagoa adierazten dute: erabiltzaileen %52 gizonezkoak dira, %48 emakumezkoak. Edonola ere, adin tarte horretako erabiltzaileak, emakume zein gizonak, ez dira totalaren %37ra iristen.

• 4.5.3.2 Kirol elkarte eta klubek antolatutako kirol ekintzak

Bestalde, kirol klub eta elkarteek Sopelako Udalarekin elkarlanean hainbat kirol jarduera antolatzen dituzte. Jarduera horiek ez dira bereziki gazteei zuzenduta egoten, baina egia da gazteek parte hartzen dutela. Hauexek ditugu ekintza eta jarduerak:

- Skate Eguna
- Igeriketa Herri Trofeoa
- Herri Duatloia
- Herri Krosa
- Ibilaldi neurtua
- Kosta Traila
- Lasterketa nudista
- Basket eguna
- Eskupilota eta pala partidak
- Bizikletari buruzko ikastaro sozialak: Cycling Tech eta Ciclofficina
- Longskate jaitsiera

2013an garatutako kirol jarduera bakar hauen partaidetza datuak izan ditugu eskuragarri:

- Downhill (longskate jaitsiera): 3 gizon eta 0 emakume, dagokigun adin tartekoak.
- Kosta Trail: izena eman zuten 435 pertsonen artean, 399 gizonezkoak izan ziren (zaharrena 61 urtekoa, gazteena 19koa) eta 36 emakumezkoak (zaharrena 49 urtekoa, gazteena 28koa)
- Basket eguna: emakumezkoen datuak bakarrik eskaini zaizkigu. 121 emakume partaide izan ziren, horietatik 16k 18 urte zituzten eta gainontzekoak adingabeak ziren.
- Sopelako Duatloia: 220 lagunek hartu zuten parte, 198 gizonek, eta 22 emakumek. Emakumeetatik batek 23 urtetik beherakoen kategorian hartu zuen parte (18-23 urte bitartean); 13k kategoria absolutuan (24-39 urte bitartean); 7k Beteranoen 1. kategorian (40-49 urte bitartean) eta batek Beteranoen 2. kategorian (50 urtetik gora).

Era berean, Munarrikolanda Mendi Taldea elkarteak honako datu hau plazaratu du: 2013an elkarteak antolatutako ekintzetan 504 lagunek hartu zuten parte, horien %58 gizonezkoak, eta %42 emakumezkoak.

4.5.4. OSASUNA

Osasun zentroak, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen laguntzarekin batera, 2013an bi ekintza eskaini zituen:

- Tabakoaren menpekotasuna gainditzeko tailerra: 25 lagunek hartu zuten parte ikastaro honetan, 15 emakumek eta 10 gizonek. Emakume batek eta bi gizonek 18-25 urte bitarteko adina zuten.

- Emakumeentzako antsietate-koadroei buruzko ikastaroa: 23 emakumek hartu zuten parte ikastaro honetan. Lau emakumek 18-35 urte bitarteko adina zuten.

4.5.5 BERDINTASUNA

Uribekostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak, Sopelako Udalaren laguntzarekin, hurrengo ekintzak eta programak bultzatu zituen Sopelan 2013. urtean:

- Emakumearen astea: martxoaren 8ko dataren testuinguruan ospatutakoa, Emakumearen Nazioarteko egunaren testuinguruan, hain zuzen. Martxoaren 4tik 10era genero berdintasunari lotutako hainbat ekintza antolatu zituzten: hitzaldia, mahai-ingurua, kontzertuak, antzerkia, poesia eta ipuin laburren sari banaketa. Ez dago eskuragarri partaidetza daturik.
- Azaroaren 25eko testuinguruan, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren testuinguruan, kale-ekintza antolatu zen. Ikerketa honetako helburu dugun adin tarteko emakume bakar batek hartu zuen parte: 18-35 urte bitarteko emakume batek.
- Beldur Barik programa: Berdintasun Udal Sareak garatutako ekimena da, eta neska gazteen eta mutil gazteen arteko berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna bultzatzeko helburua du. 2013. urtean, ez zuen gazte bakar batek ere parte hartu.

Bestalde, Sopelako Udalak eta Itzartu Emakumeen Elkarteak ikastaro, hitzaldi, tailer eta irteerak antolatzen dituzte emakumeentzat. Baina egia da, parte hartzen duten emakumeak, gehienak elkarteko bazkideak, 35 urtetik gorako emakumeak direla.

4.5.6. HERRITARREN PARTAIDETZA

2011. urtetik hona, Sopelako Udalak bultzatuta, urtero parte hartze prozesu bat egiten da aurrekontuei buruz. Urte hartako prozesu parte hartzailean (2012ko aurrekontuei zegokiona) ez ziren datuak sexuka eta adinka banatuta jaso.

2012ko prozesu parte hartzailean (2013ko aurrekontuei zegokiona) hiritarrei adina eta sexua adierazteko eskatu zitzaizkien (era boluntarioan). Nolanahi ere, galdetegiaren %31an ez ziren datuok zehaztu.

Baina galdetegiaren %69ean bildutako datuekin ondoriozta daiteke gizonezkoen parte hartzaile kopurua emakumezkoena baino altuxeagoa izan zela. (%38 gizon eta %30 emakume)

2012ko prozesu honetan jasotako datuen adin-tarteen sailkapena ez dator bat ikerlan honetarako egindako sailkapenarekin. Ondorioz, ezin dugu jakin 18-35 urte bitarteko partaidetza kopurua.

Baina 31 urtetik beherako partaidetza hartzeari erreparatzen badiogu, nesken partaidetza altuagoa izan zela esan daiteke; izan ere, 17 emakume gaztek (%6,76) eta 12 gizon gaztek (%4,76) parte hartu baitzuten.

2013. urtean ere 2014ko aurrekontuei buruzko prozesu parte hartzailea egin zen; dena den, partaidetza askoz ere txikiagoa izan zen. Datuak adinka eta sexuka taxutu ziren, baina ez zen txostenik egin eta ondorioz, ezin dira ikerlan honetarako erabili.

Gailentzekoa da, bestetik, 2014ko martxoan, Sopelan Skate Park bat eraikitzeko prozesu parte hartzailea hasi dela.

Modu berean, 2014an, Sopelako Udaleko Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena eta Lan eta Zerbitzuen sailak Sopelako erdigunean mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburua duen ikerlan bat abiatu du.

Lander Etxebarriak, Sopelako Alkatetza Aholkulariak, adierazi duenez aipatutako ikerlan horrek diagnostikoan bertan integratzen du hiritarren parte hartzea, eta baita proposamenaren aukeraketan ere. Horiek horrela diagnostikoa egiteko, hainbat tailer antolatu izan dira: hiritar guztiei zuzendutako tailerra, ikastetxeekin batera egindako lantegi batzuk, emakumeen tailer bat, eta ostalari eta merkatarien beste bat.

Ez zenez galdeketa-inkesta bat izan, ez dago sexuka eta adinka sailkatutako daturik; taldeetatik sortutako iradokizunak jaso dira. Aipatzekoa da emakumeen lantegian, oro har, emakume helduek hartu zutela parte.

5. AZTERKETA KUALITATIBOA

5.1. TREBAKUNTZA

5.1.1. Focus Group. Ondorioak

Focus Group taldean parte hartu duten emakume gazteek adierazi dute ikasketak aukeratzeko orduan emakume eta gizonen artean badaudela desberdintasunak. Haien ustez, gizon askok emakumeek baino ikasketa praktikoagoak eta mekanikoagoak aukeratzen dituzte lan merkatuan sartzeko erraztasunak izateko eta ondorioz, hauetako askok lanbide heziketako zikloak gauzatzen dituzte.

Emakumeek ikasketa unibertsitarioak egin ohi dituztela uste dute (lizenziaturak, diplomaturak, graduondokoak, masterrak) eta zaintzarekin eta esparru sozialarekin lotutako ikasketak aukeratzen dituzte. Hau da, emakumeek ikasketak aukeratzeko orduan ez dituzte lana epe laburrean -karrera unibertsitaria amaitzean- aurkitzeko aukerak kontuan hartzen, haien nahi eta lehentasunak baizik.

Parte hartzaileek azaltzen dute desberdintasun horren jatorria familia eta heziketa direla batik bat. Familian, gurasoek enpresa bat badute edo familian enpresa tradizioa badago, gazteek askotan ikasketak enpresa horretan lan egiteari begira aukeratzen dituztelako. Heziketan, aldiz, emakumezkoek eta gizonezkoek heziketa desberdina jaso ohi dugulako, rol eta paper ezberdinak ikasten eta barneratzen baititugu.

Parte hartzaileek uste dute ezberdintasun horiek argi ikus daitezkeela emakumezkoek eta gizonezkoek egiten duten ikasketa esparru eta maila aukeraketan.

5.1.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak


“Erabilitako Metodologia” atalean azaldu den moduan, ikerketa honetan galdeketa erantzunen dinamika hurrengoa da: planteatutako baieztapen bakoitza, batetik hamarrera baloratuko da, hamar puntuatuz proposatutako baieztapenarekin guztiz ados egonez gero eta bat berriz, erabat desados egonez gero.

Baieztapen bakoitza birritan planteatu da: lehenengoa, emakume gazteei buruzkoa da eta bigarrena, gizon gazteei buruzkoa. Adibidez:

- Emakume gazteek kirola bizi ohitura osasungarri bezala egiten dute.
- Gizon gazteek kirola bizi ohitura osasungarri bezala egiten dute.

Galdeketa erantzun duen pertsona bakoitzak, bi baieztapenak puntuatu ditu.

Horrez gain, landutako gai bakoitzaren datuen analisisan, neska bakoitzak baieztapen hauei buruz duen iritzia (grafikoetan barra berdea) eta mutilen iritzia (grafikoetan barra laranja) banatu da.



Grafikoen datuek erakusten duten moduan, bai emakumezkoak eta baita gizonezkoak ere, aukeratutako ikasketekin pozik sentitzen dira; izan ere, batz besteko 7 punturekin baloratzen dute.

“Emakume gazteek ikasketa ofizial, ikasketa unibertsitario, graduondoko ikastaro eta master modulu gehiago dituzte” baieztapenari dagokionez, galdeketari erantzuten dioten emakume eta gizonak Focus Group taldean parte hartu zuten gazteekin bat datoz. Izan ere, 8 punturekin baloratzen dute gizonek eta 7 punturekin emakumeek. Era berean, baieztapen hau *“gizon gazteei”* aplikatuz gero, emakumeek 5,6 batekin puntuatzen dute eta gizonek berriz, 6 punturekin. Hau da, uste dute mutilek ez dutela neskek besteko trebakuntzarik.

Hurrengo baieztapenarekin ere emakumeek erantzundako galdeketen emaitzek, talde lanen ondorioak sendotzen dituzte. Izan ere, *“Emakumezko gazteek lan merkatu sartzeko ikasketak aukeratzen dituzte”* baieztapenari 6 puntu ematen dizkiete, hau da, ez daude guztiz ados. Bestalde, gizonezkoek ia 8 puntu ematen dizkiete. Azken hauek beraz, baieztapenaren adostasunetik gertuago daude emakumezkoen aldean.

5.2. ENPLEGUA

5.2.1. Focus Group taldea. Ondorioak.

Enpleguari dagokionez, emakumeak lana bilatzerako orduan aktiboagoak direla uste dute. Haien aburuz, emakumeek aurreiritzi gutxiago dituzte lan bati baiezkota emateko unean. Hau da, emakumeek haien ikasketekin loturarik ez duten enpleguak onartzen dituzte independentzia ekonomikoa lortzeko asmoz. Gizonak aldiz, gustukoa edo gauzatutako ikasketekin lotuta dauden lanbideen zain daude. Aurkitu bitartean, ez dute arazorik gainontzeko lan eskaintzei ezetza emateko.

Beste alde batetik, uste dute emakume gazteek lan merkatu sartzeko gizon gazteek baino zailtasun handiagoak dituztela. Era berean, gizonezkoek jardunaldi osoko lana bilatzeko aukera gehiago dituztela pentsatzen dute eta emakumezkoek aldiz, erraztasun handiagoak dituztela ordu batzuetarako enpleguak aurkitzeko (jardunaldi erdia, edota ordu gutxiagoko jardunaldiak).

Enplegurako trebakuntza eta lan bilaketa prozesuan, batzuk uste dute gizonezkoak direla mota hauetako ikastaroak egiten dituztenak, haien ikasketekin lotutako lanbideak itxaroten dituzten bitartean. Beste batzuen ustez, emakumeak zein gizonak dira enplegurako trebakuntza egiten dutenak. Horrez gain, uste dute trebakuntzan gertatzen den bezala, emakume eta gizonek aukeratzen dituzten alorren artean ezberdintasunak daudela.


Gizonezkoen lehentasun nagusia, berriro ere, enplegua modu azkar batean bilatzea da, eta helburu horrekin trebatzen dira, nahiz eta ikastaro horiek, haien gustu eta interesetatik urrun egon. Hori dela eta, kurtso profesionalak amaitu ostean, gizonezkoak lan merkatura azkarrago sartzen direla uste da.

Ekintzailetasunari buruz jardunean, gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa dela eta, emakume zein gizonek oso zail dute negozio berri bat sortzea.

Partaideen ustez, nahiz eta emakumeek diru-laguntza gehiago jasotzen duten horretarako, nekez sor dezakete negozio propio bat. Bestalde, gizon ekintzaileak ezagutu ezagutzen dituzten arren, hauek herritik kanpo egiten dutela adierazten dute.

Ekintzailetasunaren harira, Sopelako artisau azokaren gaia sortzen da. Gogoratzen dutenaren arabera, emakumeak dira azoka antolatzen eta bertan parte hartzen hasi zirenak. Hori horrela izanda, uste da, emakume horien arazoan irtenbide bat izan daitekeela. Izan ere, gaur eguneko krisi ekonomikoa eta sozialaz gain, kontuan hartu behar da emakumeentzako askoz zailagoa dela enplegu bat aurkitzea. Azoka honen sorrerak emakume askori enplegua eman izan dio, eta nork bere lana sortzeari esker, diru sarrerak lortzeko modua ere aurkitu dute. Horrekin batera, berriz ere azaleratzen da emakumeek haien ikasketekin harremanik ez duten lanpostuak onartzeko ideia.

5.2.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak



Emakumeek erantzundako galdegegien emaitzek lan taldeetako ondorioak sendotzen dituzte hurrengo baieztapenarekin, *“Emakume gazteek lan merkatura sartzeko zailtasun handiagoak dituzte”*. Izan ere, 7,6 punturekin baloratzen dute. Hala ere, gizonezkoak ez daude baieztapenarekin hain ados, 6,5 punturekin baloratu baitute.

Baieztapen horrexek berak, baina oraingoan *“gizonezko gazteei”* buruzkoak, 5 puntu jaso ditu bai emakume gazteen eta bai gizon gazteen aldetik ere. Hau da, gazteek ez dute uste gizonek lan merkatura sartzeko emakumeek baino zailtasun handiagoa dutenik.

“Emakumezko/gizonezko gazteek ordu batzuetako lanaldiak aurkitzeko zailtasun handiagoak dituzte” baieztapenean ere antzeko iritziak daude gizon eta emakume gazteen artean. Jardunaldi osokoak ez diren enpleguak aurkitzeko orduan ere emakumeek gizonek baino zailtasun handiagoak dituztela uste dela ondorioztatzen da.

Autoenplegua eta ekintzailetasunari dagokionez, “Emakumezko/gizonezko gazteek euren lana sortzeko aukerak bilatzen dituzte” baieztapena, bai emakume eta bai gizonek ere 6 punturekin baloratzen dute (gizonen zein emakumeen kasuetan). Hau da, Focus Group taldean komentatu bezala, gaur egun, gutxi dira enpresa bat sortzeko saltoa ematera ausartzen diren gazteak.

Eta “nork bere lana sortzeko erraztasunak” baieztapenari buruz jarduten duen galderari erantzutean, mutilek uste dute bai gizonezkoek eta baita emakumezkoek ere erraztasun berberak dituztela. Izan ere, 6 puntu inguruko balorazioa eman diote bi baieztapenei. Dena den, nesken ustetan gizonezkoek erraztasun handiagoak dituzte. Edonola ere, kasu guztietan puntuazioak 5 eta 6 punturen artean ibili dira, hori dela eta, inork ez du ikusten gaur egun autoenplegura sartzeko erraztasun handia dagoenik.

Bestalde, neska-mutilen iritzien arabera, emakumezkoek lanpostua galtzeko aukera gehiago dute (zehazki, gizonezkoek emakumezkoek baino puntuazio handiagoarekin balioetsi dute “lanpostua galdu” inguruko baieztapena. Hau da, gizonezkoek emakumezkoek baino sinesgarritasun handiagoa ematen diote baieztapen horri).

5.2.3. Pertsonal teknikoa

Aurretik aipatu bezala, Mankomunitate honetako Enplegu teknikariek Garapen Hiri-behatokiko web orrialdetik jasotako datuak igorri dizkigute (Garapen Agentzien Euskal Elkarte).

Garapen lokaleko Behatoki honek lantzen dituen adin tartekak eta ikerketa honetan erabiltzen direnak ezberdinak dira. Hala ere, Sopolako lan merkatuari buruzko pintzelkada batzuk ematea beharrezkotzat jotzen dugu, izan ere, herri honetako 18 eta 35 urte bitarteko emakumezko eta gizonezkoen errealitate zehatza erakusten digu.


Beraz, adin ezberdinetan bereizitako datuak ditugu: ikerketa honetarako 25 urtetik beherako gazteak baliogarria da, Garapen lokaleko Behatokia (aurretik aipatutako Behatokia eta Garapen Agentzien Elkartearen Uribe Kostako Behargintzak emandako datuekin) berriz, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen parte hartzen dute. Hori dela eta, 35-45 adin tarteko biztanleriak ez dio gure ikerlanari erantzunik ematen.

Ustez Sopelako emakume eta gizon gazteen egoera argi dezaketen datuak aurkezten ditugu eta horiek horrela, datuek gazteek kontatu digutena berretsi dute.

2013. urteko enplegu datuak behatuz gero, orokorrean emakumeei 817 kontratu egin zaizkie, eta gizonezkoei 564 kontratu. Gaur egungo krisi egoeratik abiatuta, datu hauen arabera emakumezkoentzat lan egitea errazagoa dela ematen du; izan ere, azken hauek kontratu gehiago izan dituzte.


Hala ere, langabezia datuak aztertuz gero, analisi kuantitatiboan ikusi dugun moduan, emakumezkoen artean langabezia arinki handiagoa da (25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik). Gainera, kontratuak sektoreka aztertuz gero, emakume gehienak, kalifikazio gabeko langile bezala eta zerbitzuen sektoreko sukaldaritza eta merkataritza kontratatzen dituzte. Gizonak, berriz, langile kualifikatu bezala eta industria sektorean, nagusi izaten jarraitzen dute eraikuntzan, meatzaritza, eta artisautzan.

Nolanahi ere, zientzialari profesional eta intelektualen esparruan, emakume kontratatuen kopuruak, gizonezkoen kopuruak ia bikoiztu egiten du.




Ez ditugu indar armatuak kontuan hartu 0 direlako bi sexuetan, aztertutako bi epeetan.


Eta joera honek bere horretan jarraitzen du. 2014 urteko lehenengo sei hileetan zehar, Sopelan sinatutako kontratuak ondorengoak izan dira:



2014 urtean zehar sinatutako jatetxeetako zerbitzu, zerbitzu pertsonal, babes zerbitzu, eta merkataritza saltzaile lan-kontratuen artean 84 ekainean egin dira. Baina kontratazio motari erreparatuz gero, 2013. urtean zehar:



2014. urteko lehenengo erdian, 25 urtetik beherako gazteei betetako kontratu gehienak lanaldi partzialekoak dira. Hori dela eta, emakumeak jardunaldi murriztuan kontratatzen direla baieztatu dezakegu, eta ondorioz, emakumeen kontratazio kopurua hasi egiten dela.



5.3. ETXEBIZITZA

5.3.1. Focus Group taldea. Ondorioak

Gazteen iritziz, emakume zein gizonentzat oso zaila da gurasoen etxea uztea. Uste dute Sopelako gazteriarri herrian bizitzea gustatuko litzaiokeela, baina pisuen alokairuak oso garestiak direnez, herria uztera behartuta daude (prezio oso altuak eta ordainezinak haientzat).

Horrez gain, beraien aburuz, eraikuntza berriak ez dituzte Sopoloztarrentzat egiten. Eraikuntza hauek udalerritik kanpo datozen pertsoneri zuzenduak egiten dituzte (bereziki Bilbotik etorriak). Hain zuzen ere, nolabaiteko erosteko ahalmena duten bikoteei buruz ari dira. Haien etxebizitzak Sopelan erosi ohi dituzte bertan behin betiko egonkortu eta familia bat osatzeko asmoarekin.

Honek, ondorio txarrak ekarri ahal dituela adierazi dute emakumezko gazteek. Horien artean ondorengoak komentatzen dira: alde batetik, gazteria herria uztera behartuta dagoenez, Sopelan hazten ari den mugimendu soziala galdu daitekeela uste dute.


Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, Sopelara etortzen diren pertsonen normalean ez dute bizitza herrian egiten eta beraz, Sopela lotarako herri soil bihurtzeko beldur dira.

Aurreko guztia kontuan hartuz, egoera hori konpontzeko zer eskatuko luketen galdetzen zaie Focus Groupeko parte hartzaileei. Horiek horrela, hainbat proposamen aipatzen dituzte: Sopelan etxebizitza bat erosi edo alokatu nahi dutenentzako laguntza ekonomikoak eskaintzea, alokairu sozialeko etxebizitzak, herritarrentzako enplegua bultzatzea eta hutsik dauden pisuak era batera edo bestera erabiltzea.

Egoerak hala eskatuta, emakumeak beste pertsona batzuekin pisua konpartitzeko guztiz prest egoten dira. Alde batetik, momentu honetan dagoen aukera bakarra delako, eta, bestetik, esperientzia hori bizitzea gustatuko litzaikeelako.

Azkenik, emantzipatzeko gogoari gagozkiola, partaideek emakume eta gizonen artean ezberdintasunak sumatzen dituzte. Uste dute gurasoen etxea uzteko emakumeen nahia handiagoa dela. Gizonak erosoago omen daude gurasoen etxean eta gehiago kostatu ohi zaie etxe hori uztea.

5.3.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak



Grafikoko datuek erakusten duten moduan, bai neska eta baita mutilek ere, bizi diren etxebizitzarekin duten gogobetetasun maila 6 puntutan baloratzen dute. Haiek daukaten independentzia pertsonalaren gogobetetasun maila ere, 6 punturekin balioesten dute bai gizonezko eta baita emakumezkoek ere.

Emakumezkoek erantzundako galdegegien emaitzek lan-taldeetako ondorioak berresten dituzte hurrengo baieztapenarekin: “Emakumezko/gizonezko gazteek familia-etxetik irten eta etxebizitza independizatuetara jotzeko aukera erraza dute”, izan ere, 5 punturekin baloratzen dute. Mutilek baieztapenarekin are jarrera kontrajarriagoa erakusten dute nesken aldean. Izan ere, haien puntuazioa ez da 5era iristen.

“Emakumezko gazteek bikotekidea izatean bilatzen dute etxebizitza” baieztapenari dagokionez, neskek mutilek baino adostasun handiagoa erakusten dute. Izan ere, ia 7 puntu jasotzen ditu baieztapenak haien eskutik. Mutilek berriz, 6 punturekin baloratzen dute.

Baieztapen berak, baina oraingoan “gizonezko gazteei” buruzkoak, 6 puntu jasotzen ditu bai neska eta baita mutilen aldetik ere.

5.3.3. Pertsonal teknikoa

Lander Etxebarriak, Sopelako Alkatetza Aholkulariak azaldu bezala 2009. urte inguruan, Udalak lurzoru bat utzi zuen Gobernuaren esku Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE) egiteko, eta hartara, hainbat egin zituzten.

Bestalde, Sopelan ez da egon Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozio pribaturik. Gainera, Arau Subsidiarioetan BOE pribatu guztia sektore berean pilatu zen (Abaro) eta oraindik garatu gabe dago.

Gaur egun, BOE promozio bat garatzen ari dira Gobernuari saldutako Udal lurzoruarekin. Gobernuak kooperatiba bati esleitu dio promozioa eta mementoz, 90 etxebizitza eraikitzen ari dira.

5.4. OSASUNA

5.4.1. Focus Group. Ondorioak.

Parte hartzaileek diotenaren arabera, Sopelako osasun zentroan ondorengo zerbitzuak eskaintzen dira: etxeko medikuak, pediatria eta emagina. Emaginari dagokionez, komentatzen da hiru hilabeteko itxaronaldia dagoela eta zerbitzu hori asteko egun zehatz batzuetan bakarrik eskaintzen dutela. Horrez gain, parte hartzaileek adierazten dute Sopelako osasun zentroak ez duela ginekologia zerbitzua eskaintzen. Beraz, emakumeek Areetako zentrora jo behar dute osasun azterketa egiteko.


Egoera hori kontuan hartuta, emakumeek azterketa mediku egokiak egiteko erraztasunik ez dutela aditzera ematen da.

Horrez gain, adierazten da emakumeen osasunari buruzko ikerketa gutxi egiten direla. Emakume gazteek azaltzen dute osasunaren inguruko ikerlanak egiterakoan gizonetzkoen gorputzak hartzen direla abiapuntu, eta ez dela kontuan hartzen emakumeen gorputzak ezberdinak direla. Horrez gain, emakume eta gizonen betebeharrak desberdinak izan dituzte eta gaur egun ere bizimodu desberdinak ditugu. Hori horrela, osasunari dagokionez, argi dago gaixotasun eta beharizan ezberdinak ditugula. Errealitate hori askotan ahaztu egiten dela komentatzen da.

Osasunarekin lotuta edertasun-kanonei buruz ere hitz egin dute. Parte hartzaileek azaldu dute emakume eta gizonen edertasun-kanon zehatz batzuk bete behar dituztela, baina emakumeek jasan behar duten presioa askoz ere handiagoa dela. Horrez gain, komentatzen dute osasunarentzako kaltegarriak diren ohiturak sufrimenduz betetzeaz gain (dietak, takioen erabilera...), dendetan gorputza liraintzen ei duten, baina estetikoak omen ez den hori estaltzen duten jantziak saltzen direla. Horiek ez-erosoak dira, eta osasunarentzako kaltegarriak ere izan daitezke. Adibide bezala, push up leggingak aipatzen dituzte: hauek ohiko leggingak bezalakoak dira, baina oso estuak direnez (ipurdia igotzea helburu) zirkulazioa egokia oztopatzen dute.

Testuinguru horretan, ariketa fisikoa egiterako orduan neska eta mutilen artean dauden ezberdintasunei buruz ere hitz egin da. (5.6. EGUNEROKOTASUNA, HARREMANAK ETA AISIALDIA atalean garatutako ideia).

5.4.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak



Erantzundako galde-tegien emaitzek erakusten dutenaren arabera, gazteria bat dator Iñigo Valdivielso Moneoren hainbat ideiekin, Sopelako Osasun Zentroko arduraduna. "Emakumezko gazteek medikamentuak kontsumitzen dituzte" baieztapenari, bai neska eta baita mutilak ere 7 puntu ematen dizkiete. Bestalde, baieztapen berbera, baina "Gizonezko gazteei" buruzkoak 6 puntu jasotzen ditu bai neska eta baita mutilen eskutik ere. Hau da, emakumezkoek gizonezkoek baino sendagai gehiago kontsumitzen dutela uste dute.

Era berean, *“sistema soziosanitarioan informazioa edo laguntza bilatu”* baieztapenari buruz hitz egitean, neskek zein mutilek, uste dute emakumeek aholkua jaso eta gai orokorretan laguntza eskatu nahian osasun zentrorra gizonak baino gehiagotan jotzen dutela.

Aholku sanitarioa familia-plangintza esparrura mugatuz gero, antisorgailu metodoen eta osasun sexual eta osasun emankorraren inguruan, emakumeak dira laguntza eskatzen dutenak. Gizonak 8 eta ia 9 puntu ematen dizkiete emakume gazteei buruzko baieztapenei: *“Emakumezko gazteek familia-plangintza eta metodo antikonzeptiboan informazioa daukate”* baieztapenak 8,6 puntu jasotzen ditu mutilen aldetik (haien buruei buruzko baieztapena 6,9 punturekin balioesten dute); *“Emakumezko gazteek informazioa daukate edo osasun sexuala eta osasun emankorrean aholkatze sanitarioa bilatzen dute”* baieztapenak 7,8 puntu jasotzen ditu mutilen partetik (haien buruei buruzko baieztapena 5,6 punturekin balioesten dute).

Galdeketa erantzun duten emakumeak ere arlo honetan gizonak baino ardurra handiagoa hartzen dutelakoan daude. Hori dela eta, gai hauei buruzko informazio gehiago bilatzen dute.

5.4.3. Pertsonal teknikoa

Iñigo Valdivielso Moneoren arabera, Sopolako Osasun Zentroko arduraduna, gazteriak orokorrean ez du sistema soziosanitarioan informazio edo laguntzarik eskatzen. Emakume eta gizon gazteek patologia hutsalaren ondorioz jotzen dute osasun zentrorra, hala nola, hotzeriak edo gripeak jota. Halaber, emakumeak dira osasun zentrorra gehien joaten direnak. Dena den, honelako informazioak sare informalean bilatzea nahiago izaten dute (adiskideak eta gertuko jendea, batik bat).

Nahi gabeko haurduntza edo sexu-transmisiozko gaixotasunen inguruko gaietarako emakumeak gizonak baino gehiagotan gerturatzen dira osasun zentrorra. Zentroan informazioa ematen zaie eta aldizkako osasun azterketak egiteko beharraz ohartarazten zaie, hala nola, baliabide espezifikoei buruzkoak (emagina).

Gaur egun, gai hauen inguruan informazio gehiago dagoen arren, nahi gabeko haurduntza eta sexu-transmisiozko gaixotasun kasuen kopurua handitu egin da.

Familia-plangintza eta antisorgailu metodoei dagokienez, gizon gazteek ez dute emakumeek besteko ardurarik erakusten. Emakume gazteek aholku sanitarioa eskatu ohi dute osasun sexuala eta osasun emankorrean, gizonak ordea, ez.

Sendagaien kontsumoari buruz esan daiteke orokorrean pertsona gazteak ez direla sendagaien kontsumitzaileak. Dena den, aipagarria da emakume gazteen artean antsiolitikoen kontsumoa handitu dela, antsietate eta frustrazio arrazoiengatik, batik bat.

18 eta 35 urte bitarteko emakumezko eta gizonezkoen osasunaren balorazio orokorra eginez gero, deigarria da frustrazioari aurre egiteko erakusten duten erresistentzia falta. Hots, gazteek oso exijentzia maila altua duten arren, frustrazioaren aurrean oso erresistentzia txikia dute. Gehiegizko babesaz hazi eta hezi ditugu eta edozein oztopok gainditzen dituztela sentitzen dute. Egoera horiek sortzen dituzte, azken finean, medikuen jarraipena eskatzen duten antsietatea bezalako gaixotasunak.

5.5. PARTAIDETZA

5.5.1. Focus Group. Ondorioak

Borondatezko lanari eta elkartasunari dagokionez, parte hartzaileek adierazten dute ez dutela mota horietako lanak egiten dituzten pertsona asko ezagutzen. Izan ere, jende gaztearen kezka nagusiak ikasketak, enplegua eta oporrak dira. Hala ere, uste dute emakumezko gehiago direla borondatezko lanak egiten dituztenak.

Horrez gain, komentatzen dute emakumeek eta gizonek gauzatzen dituzten lan horien artean ezberdintasunak badaudela. Hau da, emakumeek heziketa eta arlo sozialarekin lotuta dauden borondatezko lanak aukeratzen dituzten bitartean, gizonek ekintza fisiko eta arriskuarekin lotutako lanetara jotzen dute.

Focus Groupean komentatzen den hurrengo arloa elkarteen gaia da. Parte hartzaileek Sopolako herrian dauden elkarteei buruz hitz egiten dute. Adierazten dute kirol elkarteak (S.D Ugeraga, Peña Txuri Surf Eskola, Urko Mendi Taldea...), elkarte kulturalak (Meñakoz...), emakumeen elkarteak (Itzartu) eta abar daudela.

Ez dago gazteentzako elkarte espezifikorik eta, kirol klubetan parte hartzen duten federatutako pertsonak salbu (orokorrean gizonezkoak), gazteek normalean ez dute elkarte hauetan parte hartzen.

Parte hartzaileek diotenez, gazteek elkarteren batetan parte hartzekotan, Sopelako Koadrilen Koordinakundeak, Gazte Asanbladak edo Jai Batzordeak antolatutako bilera eta ekintzetara jotzen dute.

Erabakitze esparruetako parte hartzeari buruz ere hitz egin da. Hasteko, Sopelan Gazte Plan bat dagoela komentatzen da, eta galdetzen da ea bertaratutakoek ezagutzen duten edo bere garapenean parte hartu ote duten. Galdera horren aurrean adierazi dute plan hori existitzen dela entzun dutela, baina ez dutela uste prozesu parte hartzaile bat abian jarri denik plana egiteko.

Bestalde, ez dute uste partaidetza bideak fidagarriak direnik. Orain dela hainbat urte udal liburutegiaren inguruan kexaka ari direla gogorarazten dute, ezarritako bide formaletatik, hain zuzen ere: Udal erregistrora idatzi bat bidali zuten egoera zein zen azalduz. Ez dute, oraindik, inolako erantzunik jaso.

Adierazten dute liburutegiaren kokapena ez dela egokia. Izan ere, honen azpian frontoia eta Kurene txokoa daude. Hori horrela izanda, askotan zaila egiten da partiduen eta bazkarien zaratarekin ikastea. Horrez gain, ordutegiak mugatuak dira: asteburuetan itxita dago; azken azterketa garaian ere itxita egon zen eta ez dituzte liburutegiaren ateak zabaltzen Sopelako Jaietan. Adierazten dute, Kurtzio Kultur Etxea liburutegiarentzako kokagune hobea izango litzatekeela askoz ere toki asaiagoa delako.

Gai honekin jarraituz, azaltzen dute hainbat kexa jarri dituztela udal rokodromoa dela eta. Sopelako mutil bat instalazioen egoera txarraren ondorioz erori zenean, hainbat herritarrek kexak eta salaketak aurkeztu zituzten Udaletxean. Horretan ere, ziurtatzen dute ez zutela inongo erantzunik jaso.

Hala ere, adierazten dute herritarren iritzia gero eta gehiago kontuan hartzen dutela. Esate baterako, Sopelan betidanik existitu izan da Skatepark baten eskaera eta momentu honetan proiektu parte hartzaile bat abian jarri dute horren inguruko hainbat kontu erabakitzeko. Horrez gain, udalak solasaldi informatiboak gauzatzen dituela azaltzen dute. Esate baterako, orain dela gutxi Urdulizeko ospitalera joateko eraikiko diren errepide berrien kokapenaren eta horiek herrian izango dituzten ondorioen inguruko jarduna antolatu zuten.


Partaidetzarekin jarraituz, galdetu egiten da, esate baterako, rokodromoa eta liburutegia hobetzeko prozesu parte hartzaileak gauzatuko balira ea emakumeek eta gizonek parte hartuko ote luketen. Honen aurrean, bertaratutakoek uste dute neskek zein gizonek parte hartuko luketela.

Dena den, haien iritziz, eremu misto batean parte hartze hori ezberdina izango litzateke. Izan ere, komentatzen dute askotan gizonen ahotsa emakumeena baino gehiago entzuten jarraitzen dela.

Honen adibide bezala, Sopelako Koadrilen Koordinakundeari (SKK) buruz hitz egiten da. Azaltzen dute SKK koadrilen arteko koordinakunde bat dela eta bere helburua gazteentzako ekintzak antolatzea eta herrian giroa sortzea dela. Komentatzen dute koordinadorak udalaren laguntza ekonomikoa eta teknikoa jasotzen duela. Bestalde, adierazten dute erabakiak asanbladan hartzen direla: ideiak proposatzen ditu eta gero botoen bitartez erabakiak hartzen dira. Bilera hauetan emakume ugari hartzen du parte eta hainbat proposamen bozkatzeko dituzte. Baina hala ere, adierazten dute asanbladaren lidergoa bi gizonen eskuetan dagoela. Bi pertsona horiek partaide zaharrenak dira eta herrian estatus maila altua dute. Hori dela eta, uste dute hainbat pertsonari parte hartzea kostatzen zaiola.

Sopelako Koadrilen Koordinakundearen egoera kontuan hartuz, berdintasunean oinarritutako parte hartzearen inguruko trebakuntza saioa egitea proposatzen da; horrela, koordinakundearen funtzionamendua eta parte hartzea hobetzeko asmoz. Edonola ere, ez dute uste onartua izango denik.

5.5.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak



Galdeketetan lortutako emaitzek Focus Groupean ondorioztatutakoak berresten dituzte hurrengo baieztapenarekin: “Emakumezko gazteek/ Gizonazko gazteek heziketa eta arlo sozialarekin zerikusia duten erakundeetan parte hartzen dute”. Izan ere, bai neska eta baita mutilek ere, emakumezko gazteek mota honetako erakundeetan parte hartzen dutela uste dute (7 puntu jasotzen ditu baieztapenak bien aldetik). Gizonazko gazteek berriz, erakunde hauetan parte hartze txikiagoa dutela uste dute (6 punturekin baloratzen dute bai neska eta baita mutilek ere).

Modu berean, *“jarduera fisikoarekin zerikusia duen boluntarioria”*-ri buruz hitz egitean, bai neska eta baita mutilek ere gizonezko gazteen parte hartze handiagoa dagoela uste dute (7 punturekin balioesten dute). Bestalde, emakumezko gazteek parte hartze txikiagoa dutela pentsatzen dute, 5,5 punturekin puntuatzen baitute.

Zehazki *“Kirol-klubetan federatzea”*, Sopelako elkartegintzan parte hartzeko beste modu bat bezala hartuz gero, bai emakumezko eta baita gizonezkoek ere, uste dute gizonezko gazteak direla kirol-klubetan federatzen direnak (8 puntu jasotzen ditu bien partetik). Bestalde, *“Emakumezko gazteak kirol-klubetan federatuta daude”* baieztapena, 5,8 punturekin baloratzen dute mutilek eta neskek aldiz, 5,2 punturekin.

Erabakitze esparruetako gazteriaren parte hartzearekin lotutako baieztapenei dagokienez, guztiek batz besteko 6 puntu jaso dituzte. Gainera, mutil eta nesken iritzien arteko ezberdintasunak oso txikiak dira. Aipagarria da emakumezkoek 7 punturekin baloratzen dutela *“Emakumezko gazteak Sopelako proiektu parte hartzaileetan gehiago inplikatzeko dira”* baieztapena, gizonezkoen 6,5 puntuen aldean. Bestalde, *“Gizonezko gazteak Sopelako proiektu parte hartzaileetan gehiago inplikatzeko dira”* baieztapenak, 6 puntu jasotzen ditu bai neska eta baita mutilen aldetik ere.

5.5.3. Pertsonal teknikoa

Naiara Billalabeitiak, Sopelako Udaleko Gazteria, Kirola eta Kultur teknikariak, konfirmatzen du ez dagoela gazteei bereziki zuzendutako elkarerik. Emakume zein gizonek, 18 urte betetakoan, talde antolatuen bazkide izan daitezke.


Gazte talde bakarrak, Gazte Asanblada Feminista eta Sopelako Koadrilen Koordinakundea (SKK)- dira. Hala ere, hauek ez dira osatu elkarte bezala, eta ondorioz, ez dute zuzendaritza-batzorderik ezta bazkiderik ere.

Bestalde, Unai Espinak, Serviocio-ko arduradunak, emandako datuak aipagarriak dira. Serviocio, udaleko kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen den enpresa da. Unai Espinak azaltzen duen moduan, 2013.urtean udal-instalazioetan antolatutako kirol-ekintzen esparruan, euskararen erabilera neurtzeko galdeketa bat egin zen. Guztira instalazioen 400 erabiltzailek erantzun zioten galdeketari. Dena den, datuak ez ziren sexuka, ezta adinka ere banatu.


Era berean, gazteek instalakuntza eta saioren ordutegien inguruko proposamenak egin ohi dituztela komentatzen du. Iradokizun hauek zerbitzua hobetzeko helburuarekin kontuan hartzen dira.

Bestalde, 2012. urtean, 2013. urteko aurrekontuak lantzeko egindako proiektu parte hartzailean, emakume eta gizonen lehentasunen arteko ezberdintasunak erakusten dira.

Lander Etxebarriaren, Sopelako Udaleko Alkatetza aholkulariaren, eskutik jasotako informazioaren arabera, eta aztertu beharreko lagina oso murriztua dela kontuan izanda, ezberdintasun txiki batzuk nabari dira gizonezko eta emakumezkoen artean. Hau da, aurrekontuak lantzeko orduan, ezberdintasun batzuk ageri dira 31 urtetik beherako gizonezko eta emakumezkoen lehentasunen artean. Hurrengo grafikoak erakusten duen moduan (aurkezten diren datuak, parte hartzaileen sexuen arabera adin tarteetatik jasotako batez bestekoak dira):



Interesgarria da, gainera, adin tartearen arabera emakumezkoen batez besteko datuei erreparatzea:




Emakume gazteek, ingurumena eta jasangarritasunarekin lotutako gaietako preferentzia argia erakusten dute (ortu ekologikoak eta hondakinen kudeaketaren hobekuntza). Hauek, gaztetxearen eraikitze proiektuarekin eta liburutegi berriaren lanekin batera, batez besteko handiagoak jaso dituzte, 31 urtetik gorako adin-tartearen datuen aldean.

Bestalde, 31 urtetik gorako emakumezkoek eguneko zentroa edo gazte-aterpetxearen eratzearen proiektuei garrantzi handiagoa ematen diete.

Proiektu parte hartzaile hauen emaitzek adierazle ezberdinei ematen diete erantzuna, eta horietan, emakumezko eta gizonen arteko desberdintasunak ez dira apenas nabarmentzen.

Hurrengo grafikoan erakusten dira, adin- tarte horren barruan, ekonomia eta enpleguari buruzko datuak. Hauetan, gizonen eta emakumeen puntuatutako batez bestekoak ageri dira:



31 urtetik beherako emakume gazteek, haien sexu bereko taldekoek baino balorazio txikiagoa ematen diete ekonomia eta enpleguarekin zerikusia duten proposamenei. Eta haien adineko gizonek baino are balorazio txikiagoa.

Azkenik, aipagarria da emakumeen %87 aurrekontuen atalak herritarrek zuzenean erabakitzearen alde daudela. Gizonen %81 dago aurrekontu parte hartzaile batzuen alde.

Gaur egun, 2014. urtean, bi proiektu parte hartzaile abiatu dira Udalerrian:

- Sopelan Skate Park bat eraikitzeko prozesu parte hartzailea
- Sopelako erdigunean mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko prozesu parte hartzailea.

Bi proiektu horietatik oraindik ez da informazio kualitatibo aipagarrikerik atera.

5.6. EGUNEROKOTASUNA, HARREMANAK ETA AISIALDIA

5.6.1. Focus Group. Ondorioak

Denbora librearen atalari dagokionez, Focus Groupera bertaratutakoek adierazten dute emakume eta gizonen artean ez dagoela desberdintasun handirik. Haien inguruan oinarrituz, uste dute beharbada gizonek denbora gehiago ematen dutela kirola egiten eta emakumeek etxearekin lotutako erosketak egiteari denbora gehiago eskaintzen diotela. Hala ere, adierazten dute ezberdintasun horiek ez direla oso nabarmenak.

Bai gizonetzko eta baita emakumezko gazteek ere, haien denbora librea lagunekin edo bikotekidearekin ematen dute batik bat.

Horren harira, parte hartzaileek gazte lokalen garrantzia azpimarratzen dute. Sopelako gazte askok, emakume zein gizonek, lokalak dituzte. Aipatzen dute gaur egun edozein ekintza gauzatzeko arlo ekonomikoak garrantzi handia duela, eta baliabide ekonomikoak mugatuak izanda, ospakizun bat egiteko zailtasunak izaten dituztela. Gaur egun, gazteriak taberna eta lokaletan igarotzen du haren aisialdia.

Gizon gazteak dira bereziki gazte lokalak alokatzen dituztenak bi arrazoi direla medio: batetik, emakume gazteek baino eros-ahalmen handiagoa izaten dutelako; bestetik, mutilek ez dutelako lokala beste koadrila ezberdin batzuekin konpartitzeko arazorik izaten. Modu horretan, guztien artean alokairuari aurre egiteko diru nahikoa lortzen dute. Emakumeek berriz, haien betiko koadrila mantendu nahi izaten dute eta ondorioz, koadrila txikiek lokalen alokairuak ordaintzeko zailtasunak izaten dituzte norberak ordaindu beharreko kopurua altuagoa izaten baita.

Horiek horrela, emakume gazteei herrian udal txoko autogestionatu bat haientzat egokitzea interesatuko litzaike, dohainik eta ordutegirik gabe.

Gai horren harira, bi errealitate aztertu daitezke:

Alde batetik, aisialdi ekintza orok nolabaiteko eros-ahalmena eskatzen du. Aurretik komentatu den bezala, gazte lokalak alokatzeko ere diru kopuru jakin bat beharrezkoa da.

Gaur egun, Sopelako gazteriaren zati bat langabezia edo baliabide ekonomiko murriztuen egoeran dago. Horrek Sopelako gazte askok bizimodu inaktibo eta pasiboa izatera eramaten ditu, eta ez dute proiektu eta ekintzetan parte hartzen. Hau da, inolako betebeharririk ez dutenez, oso erraza da egoera pasibo batean kokatzea. Gainera, baliabide ekonomikoen falta oztopoa da Udaletxetik edota beste talde antolatuetatik bultzatutako hainbat ekintza egiteko.

Hau da, egunerokotasunean betebeharririk ez izatean, bai gizonezko eta baita emakumezko gazteak ere, errutina pasibo batean sartu dira. Ondorioz, aldizkako aisialdi ekintzak existitzen diren arren, eta eskaintza dohainik bada ere, gazteriak ez du parte hartzen, errutina pasibo horretatik irtetea zaila egiten baitzaio. Gauza bera gertatzen da prozesu parte hartzaileekin ere: herritarrei parte hartzea kostatzen zaie ohitura faltagatik.

Beste alde batetik, parte hartzaileek adierazi dute Sopelan gazteei zuzendutako ekintza gutxi eskaini izan dela beti. Umeentzako eta nagusientzako ekintza ugari gauzatzen da, baina askotan gazteria ahaztu egiten dute.

Hala, gazteei zuzendutako ekintza gehiago garatzea eskatzen diote Udalari. Esate baterako, antzezlanak, kontzertuak, ikastaroak eta irteera kulturalak. Horrez gain, Sopelako emakume gazteentzako ekintzak antolatzea ere beharrezkoa ikusten dute; adibidez, jabeakuntza eskola, elkartzeko espazio bat, autodefentsa tailerra eta trebakuntzarako beste hainbat ikastaro.

Aurreko gaiekin jarraituz, parte hartzaileek komentatzen dute, gazteriak denbora librean Sopelan igarotzen duela. Nahiz eta Bilbon eskaintza kultural zabalagoa izan, ekintza bereziren bat egon ezean, nahiago dute herrian egon. Alde batetik, Bilbo eta Sopela artean distantzia handia dagoela uste dutelako eskatzen duen gastu ekonomikoagatik.

Ilido beretik, ordutegien askatasunari dagokionez, parte hartzaileen arabera, hainbat ezberdintasun dira emakumeen eta gizonen egoerak alderatzen badira. Komentatzen dute beraien ordutegiak gizonezkoenak baino zorrotzagoak direla. Horrez gain, gurasoek "kontuz" eta "mugikorra eskuan eraman" bezalako esaldiak etengabe errepikatzen dizkiete eta horiek segurtasun eza edo beldurra sor dezakete. Ziur daude gizonezkoen kasuan ez direla horrelako egoerak gertatzen.

Sare sozialei dagokienez, komentatzen da ez dagoela ezberdintasunik emakume eta gizonek erabiltzeko duten moduaren artean: sare sozialekiko menpekotasuna eta erabileraren helburuak berberak dira: gai desberdinen inguruan informatzeko, eta besteen bizitzaren berri jakiteko erabiltzen dituzte, besteak beste.

Horrekin batera, parte hartzaileek adierazten dute gazteriak bere kabuz ikasi duela sare sozialak erabiltzen. Horiekin saltseatzen ibili dira, funtzionamendua ulertu eta kontrolatu arte.

Azkenik, ondorio bezala komentatzen da Sopolako gazteen artean ez dela emakume eta gizonen arteko haustura digitalik existitzen.

Beste alde batetik, parte hartzaileen arabera, mutil gazteek neska gazteek baino denbora gehiago ematen dute kirola egiten. Izan ere, emakumeek beste lehentasun batzuk dituzte: emakume gazteek ikasketei lehentasuna ematen diete eta emakume helduagoek, aldiz, etxeko lanei eta zaintzari, beste hainbat gauzen artean.

Horrekin batera, adierazten dute kirolari dagokionez, emakumeek eta gizonek heziketa ezberdina jasotzen dutela. Mutilak kirola egitera bultzatzen dituzte bizitza osoan zehar. Esate baterako, baieztatzen dute gorputz heziketa klaseak mutilei zuzenduta zeudela eta neskek aukera gutxi zituztela kirolaz gozatzeko. Ondorioz, parte hartzaileen ustez, heziketan egiten den bereizketa hori emakumeek kirol gutxiago egiteko arrazoiatariko bat da. Are gehiago, askotan emakumeek kirola egiteari uzten diote nerabegarotik aurrera.

Kirol federatuetan emakumezkoek duten egoera eskasa da neskek kirol gutxiago egiteko beste arrazoiatariko bat. Focus Group-era bertaratutako bi parte hartzailek azaltzen dute Ugeragan jokatu dutela. Beraiek bizi duten esperientzia kontuan hartuz, adierazten dute kirol elkarte horretan emakumeek eta gizonek jasaten duten tratua ezberdina dela. Neskek entrenatzeko eta partiduak jolasteko ordutegi eta ekipamendu txarrenak dituzte. Horrez gain, beraien soldata maila baxuagoko gizonena baino askoz txikiagoa zen. Hori horrela izanda, baieztatzen dute generoan oinarritutako hainbat ezberdintasun egoera bizi zituztela. Beraz, bertan jarraitzeko arrazoia ez zen klubaren parte sentitzeko beharra, baizik eta, jokatzeko eta kirola egiteko nahia.

Federatu gabeko kirolei dagokionez, emakumeek eta gizonak gauzatzen dituzten ariketa fisikoen artean ezberdintasunak daudela ere komentatzen dute parte hartzaileek: gizonak talde ekintza gehiago gauzatzen dituzte eta normalean gimnasiora joateko ohitura gehiago dute. Emakumeek bestalde, korrika eta igeri egiten dute eta, body pump, pilates edo body combat bezalako eskolak nahiago dituzte.

Beste alde batetik, kontsumoari buruz ere hitz egiten da. Gai horri dagokionez, parte hartzaileen ustez, kontsumoaren inguruan aurkitu daitezkeen ezberdintasunak zaletasunen arabera dira. Hau da, ez dute ezberdintasun adierazgarriak ikusten emakume eta gizonen kontsumoaren artean.


Mugikortasun iraunkorrari buruz ere aritu dira. Bertaratutakoek azaltzen dute Sopolako gazteriak dezente erabiltzen duela ibilgailu pribatua, trafikoko ugari edo aparkatzeko zailtasun handiak dituen tokiren batera joan nahi ezean. Egoera horietan, emakume zein gizonak garraio publikoa erabiltzen dute.

Bide- heziketari dagokionez, azaltzen dute gaur egun oraindik uste dela emakumeek gizonak baino okerrago gidatzen dutela. Parte hartzaileen arabera, gidatzeko trebezia pertsonaren arabera da eta ez sexuaren arabera.

Horrekin batera, komentatzen dute gidatzerakoan emakume eta gizonen arteko portaeren artean ezberdintasunak daudela. Haien aburuz, gizonak emakumeak baino pazientzia txikiagoa dute eta azkarrago gidatzen dute. Horrez gain, gizonak gidatzen dutenean boteretsuago sentitzen direla adierazten dute. Horrekin lotuta, kotxeen iragarkiei buruz eztabaida sortzen da: komentatzen da kotxeen iragarki gehienak gizonak zuzenduta daudela, batez ere, handiak eta ahaltsuak diren autoen ingurukoak.

Gai hau bukatutzat emateko, parte hartzaileen azkeneko eskaera Leioako unibertsitatara heltzeko garraio publikoaren hobekuntza da. Adierazten dute unibertsitatara heltzeko metroz Algortaraino hurbildu behar direla bertan autobusa hartzeko. Beraz, bidaiak luzatzeaz gain, ikasleentzat egunero 5€ko gastua dakar.

5.6.2. Galdeketen bitartez lortutako emaitzak



Galdeketen emaitzen arabera, gazteriak aisialdia bere familia, lagunak eta bikotekidearekin ematen du. Izan ere, honi buruzko balorazio guztiek 6tik gorako puntuaketak jasotzen dituzte. Hala ere, gizon eta emakumezkoen arteko ezberdintasun txikiak sumatzen dira.

Bai neska eta baita mutilek ere, emakumezko gazteek haien familiari gizonezko gazteek baino denbora gehiago eskaintzen dietela uste dute. *“Emakumezko gazteek haien familiei denbora eskaintzen diote”* baieztapenak 8 puntu jasotzen ditu mutilen eskutik eta 7,4 puntu aldiz, emakumezkoenetik. *“Gizonezko gazteek haien familiei denbora eskaintzen diote”* baieztapenari ordea, 6,5 puntu eman diote mutilek, nesken 6 puntuen aldean.

Emaitza hauen arabera, gizonezko gazteek, haien denbora librea batez ere lagunekin igarotzen dute. Hala ere, emakume gazteekiko aldea oso txikia da.

Bikotekidearekin ematen duten denborari dagokionez, kasu honetan ere, neskak dira denbora tarte handiagoak eskaintzen dituztenak harreman mota hauetan. *“Emakumezko gazteek bikotekideari denbora eskaintzen diete”* baieztapenak 8 puntu jasotzen ditu mutilen aldetik eta 7,6 puntu ordea, neskenetik. *“Gizonezko gazteek bikotekideari denbora eskaintzen diete”* baieztapena berriz, 7 punturekin balioetsi dute mutilek, nesken 6,7 puntuen aldean.

Gai horren harira, mutilak zein neskak haien bikotekide harremanekin zein bizitza sexualarekin gustura sentitzen direla adierazten dute. Hauen inguruko baieztapenek 7 puntu inguruko balorazioa jaso dute. Aipagarria da emakumezko gazteek hurrengo baieztapenari buruz duten iritzia: *“Gizonezko gazteak haien bizitza sexualarekin pozik daude”*. Izan ere, 6,5 puntu jasotzen ditu nesken aldetik, baloraziorik baxuena hain zuzen.

Lokalei buruz, gazteriak aisialdia pasatzeko espaziotzat hartzen dira. Gizonezkoak dira lokal hauetan egotea gustukoak dutenak. Hauxe da hain zuzen ere, Focus Groupeko parte hartzaileen eta baita galdeketa erantzun dituzten pertsonen iritzia.

“Emakumezko gazteek haien lokaletan egotea nahiago dute” baieztapena, bai neska eta baita gizonezkoek ere 6 punturekin baloratu dute. Hala ere,

baieztapen bera baina "Gizonezko gazteei" buruzkoak, 8 puntu jaso ditu mutilen aldetik eta 7 puntu berriz, neskenetik.

"Lokalen alokairua ordaintzeko likidezirik ba al duten" galderari erantzutean, iritzi ezberdinak suertatu dira Focus Groupeko parte hartzaile eta galdeketen erantzuleen artean. Azken hauen artean, bai neska eta baita mutilen arabera, emakumezkoek gizonezkoek baino likidezia handiagoa daukate. Focus Groupeko parte hartzaileek berriz, kontrako iritzia erakusten dute gizonezko gazteek likidezia handiagoa daukatela esanez.

Lokalei buruzko azkenengo baieztapena hurrengoa izan da: "Emakumezko/Gizonezko gazteek Sopelako lokal eta tabernetatik at beste aukera batzuk ere badituzte". Galdeketetako neska-mutilen erantzunak ez datoz bat azken baieztapen honekin, ez emakumezko ezta gizonezkoen kasuan ere. Izan ere, 6 puntu jaso dituzte bi baieztapenek.

Teknologia berrien erabilerari dagokionez, galdeketen emaitzen arabera, gizonezko gazteek jolas eta dibertsiorako erabiltzen dituzte. Hain zuzen ere, "Gizonezko gazteek teknologia berriak joko eta dibertsiorako erabiltzen dituzte" baieztapena 7,8 punturekin balioetsi dute gizonezkoek eta 7,3 punturekin aldiz, emakumezkoek. Dena den, sexu bietako gazteek teknologia berri hauek harremanetarako erabiltzen dituztela adierazten da (online gizarte-sareak nagusiki). Izan ere, bai gizonezko eta baita emakumezkoek ere 7 puntu ematen dizkiete ondorengo baieztapenari: "Emakumezko/Gizonezko gazteek teknologia berriak harremanetarako erabiltzen dituzte".

Kirol praktikari buruz ere, ezberdintasunak ageri dira galdeketen erantzun eta Focus Groupeko parte hartzaileen artean. Izan ere, lehenengok ez dute gai honetan emakumezko eta gizonezko gazteen arteko horrenbesteko ezberdintasunik ikusten. Modu honetan, bai mutil eta baita neskek ere 7 punturekin balioetsi dute hurrengo baieztapena: "Emakumezko/gizonezko gazteek kirola bizi-ohitura osasungarria izateagatik praktikatzen dute".

Garraio pribatuaren erabilerari eta gidatzeko moduari dagokienez, galdeketako gizonen iritziek Focus Group-eko ondorioak berresten dituzte. Izan ere, "Emakumezko gazteek errepidean istripuak izaten dituzte" baieztapena 5 punturekin balioetsi dute eta "Gizonezko gazteek errepidean istripuak izaten dituzte" baieztapena berriz, 7 punturekin. Hau da, gizonezkoek, emakumezkoek baino istripu gehiago izaten dituztela kontsideratzen dute.

Sopelako segurtasun sentazioari buruz, galdeketen emaitzen arabera, emakumezko gazteak dira segurtasun falta nabariena sentitzen dutenak. Gizonezkoak bat datoz egoera honekin izan ere, "Emakumezko gazteek gaez bakarrik irteteari beldurra diote" baieztapenak 6 puntu jasotzen ditu mutilen aldetik eta 6,5 puntu berriz, neskenetik. Bestalde, "Gizonezko gazteek gaez bakarrik irteteari beldurra diote" baieztapena 3 punturekin baloratu dute bai neska eta baita mutilek ere.

5.6.3. Pertsonal teknikoa

Naiara Billalabeitia, Sopelako Udaleko Gazteria, Kirola eta Kultur teknikariaren arabera, Udalak ez du ikasle gazteei eskusiboki zuzendutako ikastaro eta ekintza kulturalik antolatzen. Hala ere, antolatutako ekintza orokorretan parte har dezakete.

Bestalde, Unai Espina da udaleko kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen den enpresako arduraduna (Servicio). Espinak sexuen arabera ezberdintasunak sumatzen ditu kirol praktikari dagokionez. Gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasunen artean, gidatuak diren eskolen parte hartzaileen %80a emakumezkoak direla nabarmentzen du.

Unai Espinaren aburuz, 18-25 urte bitarteko neska gazteek haien adinekoentzako ekintza taldeak bilatu ohi dituzte. Izan ere, adin askotariko multzoetara egitea asko kostatzen zaie. Bestalde, 18-35 urte bitarteko gizonezkoek gimnasia joatea nahiago izaten dute klase gidatuen aldean.

Azkenik, areto ekintzetan eta fitness aretoan aldi berean aritzeko izena ematea ez dela ohikoa komentatzen du. Emakumeak fitness aretoan hasten diren arren, denborak aurrera egin ahala, alde batera utzi eta ekintza aretoetara jotzen dute. Gimnasioak aspertu egiten ditu eta bertan ez dira guztiz eroso sentitzen.

6. AZTERKETAREN ONDORIOAK

Ikerlan hau aztertutako gazteriarri egokitutako prozesu parte hartzaile malgu baten bitartez gauzatu izan da. Honen helburua proiektuan ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea izan da.

Edonola ere, ikerlanaren lehenengo ondorioa Sopelan emakume gazte aktiboen talde bat badagoela izan daiteke. Izan ere, 10-14 neskek osatutako talde hau udaleko proiektu eta ekintzetan parte hartu eta inplikatzeko prest azaldu izan da beti. Haiak izan dira, hain zuzen, Berdintasun Zerbitzutik antolatutako genero ikuspegidun hainbat ekintzen partaide, eta esan gabe doa, emakume eta gizonen berdintasunean oinarritzko ezagutza badutela.

Modu berean, emakume gazte hauek izan dira proiektu honetako Focus Groupetan parte hartu dutenak. Haiexek galdeketak erantzuteaz gain, haien lagunek ere bete ditzaten animatu dituzte. Horretaz aparte, Facebook-eko profilean ere azterketari buruzkoak idatzi dituzte.

Hala ere, Sopelako gainontzeko emakume gazteek orokorrean ez dute partaidetza aktiborik erakusten: ez herritarren partaidetzarako prozesuetan; ez eta kultura/gizarte elkarteetan ere; ez kirol klubetan, ezta Udaletxetik edo Elkarteetatik bultzatutako ekintza eta proiektu zehatz eta puntualetan ere.

Pasibotasun horren arrazoiak Focus Groupean azaldu dira: langabezia, baliabide ekonomiko murrizten egoera, inertzia eta ohitura falta.

Hau da, egunerokotasunean betebeharririk ez izatean, bai gizonezko eta baita emakumezko gazteak ere, errutina pasiboan sartu dira. Ondorioz, aldizkako aisialdi ekintzak existitzen diren arren, eta eskaintza dohainik bada ere, gazteriak ez du parte hartzen, errutina pasibo horretatik irtetea zaila egiten baitzaio. Gauza bera gertatzen da prozesu parte hartzaileekin: gazteei parte hartzea kostatzen zaie ohitura faltagatik.

Trebakuntza eta enpleguari dagokienez, emakume gazteek argi ikusten dute ikastetxe zein gizarteak orokorrean (familia, irakurketak, pelikulak, komunikabideak) gizonezko eta emakumezkoen arteko heziketa bereizia bultzatzen dutela. Modu honetan, emakumezko eta gizonezkoek tradizioz mantendutako rola barneratzen dituzte.

Hori horrela izanda, emakumezkoek zaintzarekin eta esparru sozialarekin lotutako ikasketak aukeratzen dituzte (orokorrean ikasketa unibertsitarioak). Gizonezkoek berriz, lanbide heziketa zikloak gauzatzen dituzte eta ikasketa praktikoa eta mekanikoa aukeratzen dituzte lan merkatura sartzeko erraztasunak izango dituztelakoan.

Lan merkatura geroago sartzek, emakumeek haien trebakuntza aldia gizonek baino gehiago luzatzea dakar. Diplomatura edo lizentziatura baten ostean, graduondoko ikastaroak eta masterrak ikasten dituzte. Ikasketa hauek ordu batzuetako enpleguekin bateratzen dituzte (lanaldi-erdiko enpleguak edo ordu gutxiagoko lanaldiak ere). Guzti honen ondorioz, denborak aurrera egin ahala, lanaldi osoko enpleguak aurkitzeko gero eta zailtasun handiagoekin egiten dute topo.

Emantzipatze prozesuari dagokionez, emakume zein gizonentzat oso zaila da gurasoen etxea uztea. Izan ere, ez dituzte izaten independentzia lortzeko beharrezkoak diren gutxieneko baliabide ekonomikoak. Dena den, desberdintasunak sumatzen dira emakumezkoen eta gizonezkoen artean independizatzeko gogoari dagokionean. Emakumeek gurasoen etxea uzteko gogo handiagoa dute; gizonak, aldiz, erosoago daude gurasoen etxean eta gehiago kostatzen zaie etxe hori uztea.

Emakume gazteentzat, gizarteak ezarritako edertasun-kanonek emakumeen osasuna kalte dezakete; gaur egungo irudi eta itxura estereotipatuak betetzeko ahalegina egiten duten emakumeen osasuna, hain zuen. Izan ere, haien gorputza aldatzeko hainbat praktika arriskutsu egiten dituzte (dieta, gorputza "moldatzen" duten arropak, etab.)

Horrekin lotuta eta estereotipo horien atzetik joan nahian, hainbat emakumek kirola egiteari ekin diote. Berezi, polikiroldegietan gidatutako klaseetara jotzen dute, pilates, body pump eta body combat bezalakoetara, hain zuzen ere. Dena den, gehiengoak 35 urtetik gorako emakumezkoak dira, hau da, ez dute azterketa honen parte hartzaileen kolektiboa osatzen.

Osasun sexuala eta osasun emankorrari dagokionez, emakumeak dira aholku sanitarioa eskatzen dutenak. Horrez gain, familia-plangintza, antisorgailu eta sexu-transmisiozko gaixotasunez kezkatzen dira. Gizon gazteek berriz, ez dute inongo kezkarik izaten.

Medikamentuen kontsumoari buruz esan daiteke orokorrean gazteak ez direla sendagaien kontsumitzaileak. Dena den, aipagarria da, emakume gazteen artean antiolotikoen kontsumoa handitu egin dela; batik bat, antsietate eta frustrazio arrazoiengatik.

Partaidetzari dagokionez, ez dago gazteentzako elkarte espezifikorik. Hala ere, gazteek elkarte bezala egituratuta ez dauden bi taldetan parte hartzen dute: Sopelako Koadrilen Koordinakundea eta Gazte Asanblada. 18-35 urte bitarteko gizon gazteak, kirol klubetako partaide dira (zuzendaritza-batzordeetan kargurik betetzen ez duten arren), emakume gazteak ordea, ez.

Emakume gazteek Koadrilen Koordinakundean parte hartzen duten arren, gogotsuenek diotenez erabakiak hartzeko batzarretan ez diete jaramonik egiten. Izan ere, lidergoa ustez estatus handiagoa duten gizonen esku baitago. Ondorioz, parte hartzaile pasiboak, ez dira batzarretan haien iritzia ematen ere ausartzen.

Bestalde, gazteriak ez du Sopelako Udaletxetik abiatutako proiektu parte hartzaileetan parte hartzen. Salbuespen bezala, hala ere, 2014.urtean aurrera eramandako prozesu parte hartzailea daukagu: Sopelan Skate Park bat eraikitzeko proiektua.

Gizon gazteak izan ziren gai horretan interes handien erakutsi zutenak eta bertan parte hartzen ari direnak. Hala ere, emakume gazteak horrelako prozesuetan parte hartzeko interesa badutela adierazi dute, haien intereseko gaiak jorratzen direnean, noski.

Ondorioen hasierako atalean komentatu den moduan, emakume gazteek haien aisialdian ez dute Udaletik edo beste elkarte batzuetatik antolatutako ikastaro eta ekintza kulturaletan parte hartzen. Hala ere, eta ekintza hauetako bat bera ere ez eskusiboki gazteei zuzendua ez egon arren, horietan parte hartzeko aukera daukate.

Mutilek zein neskek haien denbora librea adiskide eta bikotekidearekin igarotzen dute batik bat. Hala ere, emakumeak dira haien familiei denbora gehien eskaintzen dietenak.

Aipagarria da gazteen harremanetan gazte-lokalek duten garrantzia; izan ere, tabernen alternatibatzat dituzte. Dena den, gizonezkoak dira baliabide hau gehien erabiltzen dutenak bi arrazoi direla medio: haien erosteko ahalmena handiagoa baita alokairuari aurre egiteko, edo malguago jokatzen dutelako lokaleko gastuak banatzeko jendea aukeratzeko orduan.

Horrez gain, gizonek haien denbora librean kirola egiteko aukera ere badute (bai kirol federatua eta baita nork bere kabuz praktikatzen duena ere). Izan ere, haurtzarotik (ikastetxeetan, haien familietan eta gizartean orokorrean) bizitzan zehar kirola praktikatzen bultzatzen dituzte. Emakumeek, ordea, ez dute modu horretako motibaziorik jaso eta horren eraginez, askok nerabezeroaren amaierarekin batera kirola egiteari uzten diote.

Guzti horrengatik, Sopelako emakume gazteek gizonek baino aisialdi aukera gutxiago dituztela sentitzen dute.

Teknologia berriei eta zehazki sare sozialei dagokienez (Facebook, Twitter, Instagram, etab.) ez dago ezberdintasunik emakume eta gizonek erabiltzeko duten moduaren artean: sare sozialekiko duten menpekotasuna eta erabilera helburuak berberak dira, izan informatzeko, edo izan besteen bizitzaren berri izateko. Hori dela eta, Sopelako gazteriaren artean ez da emakume eta gizonen arteko haustura digitalik existitzen.

Sopelan seguru sentitzearen sentsazioari buruz, emakume gazteak dira ziurtasun falta nabarmena sentitzen dutenak, bereziki gauean bakarrik irteten direnean. Gizon gazteek ordea, ez dute horrelako arazorik sumatzen.

7. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

Planteatzen diren etorkizunerako proposamenak ikerlan honetako interes arlo bakoitzetik eratorritakoak dira, eta hainbatetan, Focus Group taldeetan parte hartu duten emakume gazteek proposatutakoak dira. Izan ere, lantaldeetan desberdintasun egoerez eztabaidatzeaz gain, parte hartzaileek emakume eta gizon gazteen artean desberdintzat jotzen dituzten egoera horiek zuzentzeko, saihesteko edo urritzeko proposamen zehatzak egin dituzte.

Trebakuntza edo formazioari dagokionez, sentsibilizazio kanpainak egiten jarrai daitekeela uste da, pertsona bakoitzak bere lanbidea era independentean erabaki dezan eta emakume zein gizon izateak ez dezan erabaki hori baldintzatu. Pertsona bakoitzak bere interesen eta nahien arabera ikasketak egin ditzala bermatzeko lan egiten jarraitzea; hau da, lanbideek sexurik ez dutela transmititzea. Era berean, esfortzu berezia egitea emakumeek, hala nahi izatekotan, tradizioz gizonenak kontsideratu diren lanbideetara bideratutako ikasketak aukera ditzaten; izan ere, lanbide horiek baitira, oro har, lan merkatuan aukera gehien eskaintzen dituztenak.

Enpleguari dagokionez, gaur egungo krisi ekonomikoa aintzat hartuta, aipatzekoa da lan merkatuan sartzea zaila dela gizon zein emakumeentzat. Edozelan ere, aurreko puntuan aipatu bezala, genero ikuspegidun trebakuntza sustatzen den neurrian, enplegurako irisgarritasuna berdintsuagoa izango da eta horrela, emakume eta gizonen lanpostua eskuratzeko aukera eta baldintza berberak izaten has daitezke.

Etxebizitzari dagokionez, Sopolako neska gazteek elkarbizitza eta etxebizitza edukitzeko modu berriekiko apustua egiten dute. Uste dute gaur egun emantzipaziorako aukera bakarra etxebizitza elkarbanatzea dela eta gainera, esperientzia hori bizitzea gustatuko litzaikeela adierazi dute.

Hiru ekarpen hauek proposatzen dituzte:

- Sopelan etxebizitza bat erosi edo alokatzeko interesa duten gazteei diru-laguntzak eskaintzea.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu sozialerako promozioak sustatzea.
- Udalerrian dauden etxebizitza hutsei erabilera edo irteeraren bat ematea.

Eta esperientzia berritzaileak planteatu litezke; besteak beste, gazteentzako zuzkidura-bizitokiak.

Osasun arloari erreparatuz, lan-taldeko partaideentzat oso garrantzitsua da gizarteak inposatzen dituen edertasun kanonetan ez erortzea; izan ere, emakumeentzat osasunerako kaltegarriak baitira. Horrexegatik, proposamena edertasun kanon horiek eta normaltzat ditugun itxura-estereotipoak ezabatuko dituzten kanpainen lanketa litzateke, emakumeen autoestimua indartzeari begirako lanketa bat, bakoitzak bere burua den modukoa onar dezan.

Osasun sexual eta emankorrari eta familia planifikazioari dagokionez, gizon gazteen inplikazio txikia kontuan hartuta, gizonekin lan egiten saia gintezke eta gaixotasun sexualen eta osasun emankorrari buruzko informazioa eman.

Partaidetzari dagokionez, neska gazteek oso argi dute Koadrilen Koordinakundearekin lotuta dagoen proposamen bat, nahiz eta ez duten uste gizonezkoek haien gain hartuko dutenik.

Koordinakundeko partaidetza kanalak eta funtzionamendu orokorra hobetzeko ikastaro bat proposatu dute: berdintasuneko partaidetza berma dadin, genero ikuspegidun formazio ikastaroa, alegia. Helburua emakume gazteen parte hartze aktiboa ahalbidetzea da, koordinakundeko batzarretan zein haren erabaki organoan.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen da Sopolako Udalak gazteek erabiltzen dituzten bi Udal Instalazio hauei buruzko prozesu parte hartzaileak bideratzea: rokodromoa eta liburutegia. Liburutegiari buruzko prozesua, gazteei galdetzeko zein den haientzat liburutegiaren kokaleku eta ordutegi egokiena, eta Rokodromoari buruzkoa, berriz, instalazioaren egoera erreala zein den adierazi eta mantenu lan egoki baten falta duela salatzen.

Partaideek haien aisialdia eta egunerokotasunean lau dira Sopolako emakume gazteentzat estrategikotzat dituzten eskaerak:

- Gazteen gunek bat sortzea: emakume gazteei Sopolan Udal txoko bat izatea interesatzen zaie, gazteek eurek autokudeatuta, doakoa eta ordutegirik gabekoa.
- Gazteei bereziki zuzendutako Udal ekintzak antolatzea: antzezlanak, kontzertuak, ikastaroak, irteera kulturalak... Era berean, neska gazteek beharrezkoa ikusten dute Sopolako emakume gazteei zuzendutako ekintzak eskaintzea. Horien artean hauexek aipatu dituzte: "Jabekuntza eskola" sortzea eta bertan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako ikastaro/lantegi/jardunaldiak antolatzea; emakumeak biltzeko doako gunek bat eskaintzea, haien intereseko ekintzetarako balia dezaten.
- Garraiobide publikoa hobetzea: Leioako Unibertsitatera joateko, beharrezkoa dute Algortarako metroa hartzea eta hortik autobusez Leioara joatea. Bide luzea izateaz gain, Unibertsitatera iristeak eguneko 5 euroko gastua suposa dezake, eta horregatik proposatzen dute garraiobide publikoan hobekuntzak egitea, edota Fakultatera joateko linea berezitu bat sortzea.
- Sopolako emakume gazteen segurtasun sentzazioa handitzea.